

munibe

SUPLEMENTO 17. GEHIGARRIA

EUSKAL HERRIA ETA BERE INGURUNEKO TXANPIOIEN GIDA
AGARICUS L.: Fr. GENEROAREN AZTERKETA




GUIA DE LOS CHAMPIÑONES DEL PAIS VASCO Y SU ENTORNO
ESTUDIO DEL GÉNERO AGARICUS L.: Fr.

PEDRO ARRILLAGA ANABITARTE



ARANZADI

zientzi elkartea . sociedad de ciencias
society of sciences . soieté de sciences

AURKEZPENA**PRESENTACIÓN**

Telesforo Aranzadik “Euskalerriko Perrechikuak – Setas u Hongos del País Vasco” lana eman zuen argitara 1897. urtean, lan aitzindaria mikologiaren esparruan, eta irakurleari jateko moduko perretxiko eta onddoen eta perretxiko eta onddo pozoitsuen artean sailkapena errazteko asmo xeheak bultzatuta idatzi bazuen ere, arlo honetan kontsultak egiteko obra nagusi bihurtu zuen hamarraldietan zehar lanaren zientzia maila altuak. Lan hau Telesforo Aranzadiren zientzia gaitasunaren testigantzetan aurrenekoetakoia izan zen, eta haren oinordekotzaz eta ereduaz baliatu ziren 1947. urtean Aranzadi Zientzi Elkartearen fundatzaileak.

Hemen aurkezten dugun obra honek segida ematen dio Telesforo Aranzadik ekindako bideari, eta Aranzadi Elkartearen Mikologia sailean egindako ikerketen zientzia maila altuaren erakusgarri da aldi berean. Gure Elkartea arlo askotan ari da lanean eta bere osotasunean eutsi egiten dio Telesforo bezalako humanista jakintsuen nortasun hari, pertsona haiek, ase ezinezko ezagutzen egarri izaki, adituak baitziren oso era askotako arlotan. Gaur egun espezializazioak ez bairik gabeko aurrerakuntza ekarri du mikologia arloko zientzia ezagutzetan, eta *Agaricus L.: Fr.* generoaren monografia honek gure herrialdean orain arte egin den “perretxikoei” buruzko lan osoena da dudarik gabe. Arlo honetan dagoen espezialista handienetakoa izateaz gainera, Pedro Arrillaga egileak bere egiten du zientzia ikerketaren eta ezagutzen berri zabaltzearen ekarpen altruistaren izpiritu aranzadiar hura.

Niretzat harro egoteko modukoa da oraingo honetan obra hau aurkeztu ahal izatea, izan ere, Mikologia sailaren fundazioan sustatzaileetako bat eta saileko lehenengo lehendakaria izan nintzen hirurogeigarren urteetan. Gaur lehenengo aldiz aurkezten dugu Mikologiari buruzko lan monografiko bat Munibe aldizkarian, eta bide honek luze gabe fruitu berriak emango dituelakoan gaude.

En el año 1897 D. Telesforo de Aranzadi publicó “Euskalerriko Perrechikuak - Setas u Hongos del País Vasco” una obra pionera en el campo de la micología y que a pesar de sus humildes pretensiones de facilitar al lector la clasificación entre las setas y hongos comestibles y venenosos, su alto nivel científico la convirtió durante décadas en la principal obra de consulta de su género. Este fue uno de los primeros testimonios de la capacidad científica de Telesforo de Aranzadi, de cuya herencia y ejemplo se sirvieron los fundadores de la Sociedad de Ciencias Aranzadi en el año 1947.

La obra que aquí se presenta continúa aquel camino emprendido por D. Telesforo de Aranzadi y es muestra del alto nivel científico de las investigaciones realizadas en el departamento de Micología de Aranzadi. Nuestra Sociedad es polifacética en sus disciplinas y en conjunto conserva aquella identidad de los sabios humanistas como Telesforo, personas que mostraban un extraordinario conocimiento de las más diversas disciplinas y una inagotable sed de conocimientos. Hoy en día la especialización ha supuesto un indudable avance en los conocimientos científicos micológicos, esta monografía del género *Agaricus L.: Fr.* es sin duda la más completa que se ha realizado hasta la fecha sobre los “champiñones” en nuestro país. Su autor Pedro Arrillaga no solo se nos presenta como uno de los máximos especialistas en la materia sino que también recoge ese espíritu Aranzadiano de entrega altruista a la investigación científica y a la difusión de sus conocimientos.

Es para mí un motivo de especial satisfacción poder presentar esta obra ya que en la década de los años sesenta fui uno de los promotores en la fundación del departamento de Micología y también el primer presidente de la sección. Hoy presentamos por primera vez un monográfico de la revista *Munibe* sobre Micología, esperemos que este nuevo camino dé en breve nuevos frutos.

JOSE MIGUEL LARRAÑAGA*Lehendakaria - Presidente*

Agaricus L.: Fr. generoa Euskal Herrian eta inguruetan

El género *Agaricus* L.: Fr. en el País Vasco y zonas limítrofes

The genus *Agaricus* L.: Fr. in the Basque Country and bordering areas

Pedro Arrillaga Anabitarte
Aranzadi Zientzi Elkarte, Mikologia Saila
Zorroagaina, 2014
Donostia / San Sebastián

GAKO-HITZAK: *Agaricales*, *Agaricus*, korologia, ekologia, taxonomia, Euskal Herria.
PALABRAS CLAVE: *Agaricales*, *Agaricus*, corología, ecología, taxonomía, País Vasco.
KEY WORDS: *Agaricales*, *Agaricus*, chorology, ecology, taxonomy, Basque Country.

LABURPENA:

Gaur egun *Agaricus* generoa, hiru subgenerotan banatzen da; *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm., *Conioagaricus* Heinm. eta *Lanagaricus* Heinm.- European *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm subgenero-ko espezieak bakarrik daude.

Azken hamar urteetan (1994-2004), subgenero honetako 52 taxoi bildu ditugu Euskal Herrian eta inguruko zenbait lekutan. Espezie hauetako 300 ale lehor kontserbatzen dira Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman.

RESUMEN:

El género *Agaricus* L.: Fr., se divide actualmente en tres subgéneros distintos; *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm., *Conioagaricus* Heinm. y *Lanagaricus* Heinm.- En Europa se encuentran únicamente especies del subgénero *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm.

A lo largo de estos últimos diez años (1994-2004), hemos recogido en el País Vasco y en algunas zonas limítrofes concretas, un total de 52 táxones distintos de este subgénero, de los cuales conservamos en el herbario de la S.C.Aranzadi un total de 300 exsiccatas.

SUMMARY:

The genus *Agaricus* L.:Fr., is actually divided in three different subgenus; *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm., *Conioagaricus* Heinm. and *Lanagaricus* Heinm.- In Europe we can only find species of the subgenus *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm.

During the last ten years (1994-2004), we recolect in the Basque Country and some concrete limitrofeus areas, 52 different taxons of this subgenus, and we conserve in the herbarious of the Aranzadi S.C. a total of 300 *exsiccatum*.

SARRERA:

1753. urtean, Karlos Linneo suediar naturalista handiak *Agaricus* generoan bildu zituen orriak zituzten onddo guztiak. Urteetan zehar, pixkanaka-pixkanaka hainbat subgenerotan banatu zen talde handi hori.

Elias Magnus Fries-ek, bere *Systema mycologicum* (1821) lanean, Linneoren *Agaricus* genero handitik soilik bi genero bereizi zituen, *Cantharellus* eta *Schizophyllum*, eta taldeetan banatu zituen. Talde horietako batek, *Psalliotak*, oinean eraztuna eta purpura koloreko esporak zituzten espezieak hartzen zituen, egungo *Agaricus* eta *Stropharia* barne.

Epicrisis (1838) lanean, Friesek bi sailetan banatu zuen *Psalliota* taldea, *Lepiotidae*, orriak oinetik berex dituzten onddoak eta *Pholiotidei*, orriak oinari itsatsita dituztenak.

1857an, Friesek bi subgenero ezberdin gisa aurkeztu zituen aurreko sail horiek, eta horrenbestez, *Psalliota* izenak egungo esanahia du, baina oraindik ez da genero baten izena.

1872an, L. Quélet-ek, “Champignons du Jura et des Vosges” bere lanean genero maila eman zion *Psalliota* subgeneroari.

1879an, P. Karsten-ek “Botanika Izendegiaren Nazioarteko Kodearen” printzipioak aplikaturik, *Psalliota* izenaren ordeaz *Agaricus* izenari eustea erabaki zuen.

Laburbilduta eta “Botanika Izendegiaren Nazioarteko Kodeak” zehaztutakoaren arabera, Friesen *Psalliota* subgenerotik etorritako generoaren izen zuzena *Agaricus* da, eta horixe da kontserbatu behar den izen generikoa.

Gaur egun *Agaricus* generoak hiru subgenero ditu: *Agaricus*, *Conioagaricus* eta *Lanagaricus*. Azken bi horiek espezie exotikoak, tropiko edo azpitropikokoak, jasotzen dituzte, eta horrenbestez, *Agaricus* generoaz hitz egiten dugunean, *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm subgeneroko espezie europarretaz ari gara.

Allopsalliota generoa – Nauta & Bas (1998) 1999, *Agaricus geesterani* Bas & Heinem generoaren ezaugarrietara egokitzeke sortu da, horixe baita orain arte genero horretako espezie bakarra.

INTRODUCCIÓN:

En el año 1753, el gran naturalista sueco Carlos Linneo reunió a todos los hongos con láminas en el género *Agaricus*. A lo largo de los años este conjunto tan extenso fue separándose poco a poco en distintos subgéneros.

Elias Magnus Fries en su *Systema mycologicum* (1821), separó del gran género *Agaricus* de Linneo únicamente dos nuevos géneros, *Cantharellus* y *Schizophyllum*, dividiéndolos en tribus. Una de estas tribus, *Psalliota*, comprendía a las especies con anillo en el pie y con esporas de color púrpura, incluyendo a los actuales *Agaricus* y *Stropharia*.

En su obra *Epicrisis* (1838), Fries divide la tribu *Psalliota* en dos secciones distintas, *Lepiotidae*, hongos con las láminas libres del pie y *Pholiotidei*, con láminas adnatas.

En 1857, las dos secciones anteriores fueron presentadas por Fries como subgéneros distintos, de este modo la denominación de *Psalliota* se eleva al actual significado, pero no se atribuye todavía a un género.

En 1872, L. Quélet, en su obra “Champignons du Jura et des Vosges” elevó el subgénero *Psalliota* al rango de género.

En 1879, P. Karsten aplicando los principios del “Codigo Internacional de Nomenclatura Botánica”, decide mantener el nombre de *Agaricus* en sustitución del de *Psalliota*.

Resumiendo y de acuerdo con la regulación del “Codigo Internacional de Nomenclatura Botánica”, la denominación correcta para el género derivado del subgénero Friesiano *Psalliota*, es *Agaricus*, como nombre genérico a conservar.

En la actualidad el género *Agaricus* incluye tres subgéneros: *Agaricus*, *Conioagaricus* y *Lanagaricus*. Los dos últimos comprenden especies exóticas, de origen tropical o subtropical, por lo tanto cuando hablamos del género *Agaricus*, nos estamos refiriendo en realidad a las especies europeas del subgénero *Agaricus* (L.: Fr.) Heinm.

El género *Allopsalliota* – Nauta & Bas (1998) 1999, ha sido creado para adecuarse a los caracteres de *Agaricus geesterani* Bas & Heinem, que es hasta el momento la única especie de este género.

MATERIALA ETA METODOAK:

Bildutako aleen laginak erabili dira mikroskopia marrazkiak egiteko, lehen azterketa bat freskoan egin zaie eta gainerako egiaztapenak ale lehorretan egin dira.

Bi mikroskopia binokular erabili dira, eskala mikrometrikorekin, bata "Nikon" eta bestea "Olimpus", 40x eta 100x neurriko objektiboak, eta ur tantan murgilduta.

Tindatu eta berridratatzeko erabilitako baliabideak honako hauek dira: amoniako gorri-kongoa %1ean, floxina, amonio hidroxidoa eta potasio hidroxidoa %10ean lehortutako laginak berridratatzeko.

Espora espora-jalkin askean behatu eta neurtu dira.

Espora amoniako gorri-kongoan neurtu dira %1ean, 100x neurriko objektiboaz eta ur tantan murgilduta. Honako metodo hau erabili da neurriak kalkulatzeko:

$n=20$ rako; txikiena eta handiena parentesi artean azaltzen dira kopurua laginaren %10etik gorakoa ez bada, gainerakoetan, gutxieneko neurria eta neurri goren adierazten dira luzeran nahiz zabaleran.

Aleak lehortzeko, haize beroa botatzen duen berogailua erabili da, 40°-60°C-ko tenperaturan lehortu eta plastikozko poltsa hermetikoetan sartu dira. Ondoren, izozkailuan sartu dira eta han eduki dira bi aste -20°C-tan. Gero, ale lehorrak Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman gorde dira bakoitza bere fitxarekin.

Lan honetan, espezie eta mota bakoitzak zenbaki bakarra dute landare-bilduman, aurretik beste zenbaki batzuk dituzten aipamenak daudenean izan ezik. Espezie eta ale zehatza zein den jakiteko, landare-bilduman duen zenbakia eta bildutako eguna jartzen dira argazki bakoitzaren oinean.

MATERIAL Y MÉTODOS:

Para la realización de los dibujos de microscopía se han utilizado muestras de los ejemplares recolectados, en una primera observación en fresco y posteriores comprobaciones sobre los ejemplares ya exsiccados.

Se han utilizado dos microscopios binoculares, con escala micrométrica, uno "Nikon" y el otro "Olimpus", con objetivos de 40x y 100x en inmersión.

Como medios de tinción y rehidratación; rojo congo amoniacal al 1%, floxina, hidróxido de amonio e hidróxido potásico al 10% para la rehidratación de las muestras exsiccadas.

La observación y medición de las esporas se ha realizado sobre esporada libre.

Las esporas se han medido en rojo congo amoniacal al 1% con objetivo de inmersión de 100x. Para calcular sus dimensiones, se ha utilizado el siguiente método:

Para $n=20$; la menor y mayor se indican entre paréntesis siempre que no pasen en número del 10% de la muestra, del resto, las dimensiones mínima y máxima tanto en largura como en anchura.

Los ejemplares se han secado en estufa de aire caliente a una temperatura entre 40°- 60°C. y se han introducido en bolsas herméticas de plástico, pasándolas a continuación al congelador donde han permanecido durante dos semanas a -20°C. Posteriormente se guardan las exsiccatas con su ficha correspondiente en el herbario de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

En este trabajo, cada especie y cada variedad tienen un único número de herbario, salvo en el caso de que existan citas anteriores con distinto número. Con el número de herbario y la fecha de recolección indicada al pie de cada fotografía se identifica la especie y el ejemplar en concreto.

EZAUGARRI ZEHATZAK:

Agaricus generoko espezieak zehaztea beti ez da lan erraza, eta horregatik, lan honetan xehe aztertu ditugu ezaugarri makro nahiz mikroskopiko guztiak eta karpoforoen mamian eragiten diren erreakzio kimikoak.

Amar urte iraun duen azterketa-lan honetan, ale ugari jaso dugu Euskal Herrian eta inguruetan. Biltze-lan horren ondoren 52 taxoi bereizi ditugu guztira eta 300 ale lehor kontserbatzen ditugu Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman.

Aztertu beharreko ezaugarri makroskopikoen artean, neurriak, kolorea, oinaren eta txapelaren itxura, orrien kolorea, mamiaren kolorea ebakitzean, igurtzitzean botatzen duen usaina eta eraztunaren ezaugarri xehe guztiak hartzen ditugu kontuan.

Erreakzio kimikoen artean arreta berezia ematen diogu "Schaefferen" erreakzioari, generoaren barruan espezie kopuru handi samarra bereizteko aukera ematen baitigu. Gutxiago erabiltzen dira potasio hidroxidoa %10ean, alkohola, anilina purua eta burdina sulfatoa %10ean.

Ezaugarri mikroskopiko garrantzitsuenak espora, keilo-zistidio eta basidioen forma eta neurriei dagozkie.

Horrekin batean, karpoforoen habitata, hazteko modua eta hazten diren lurra ere aztertzen ditugu.

TXAPELA:

Txapelaren neurriak, eta gaztetan eta hazi ondoren duen itxura aztertzeaz gainera, kolorea, apaingura eta txapelertzean errezel hondakinik duen kontuan hartzen dugu.

Hondoaren kolorea, igurtzitzean txapel-azalak duen erreakzioa eta usaina ere ezaugarri garrantzitsuak dira espezie bat zehazteko orduan.

OINA:

Beti ere erdialdean egongo da, batzuetan besteetan baino luzeagoa izango da, eta honako ezaugarri hauetako bat edo batzuk izango ditu: betea, kofaduna, erraboiladuna, zilindrikoa, borra-formakoa, loditua edo mehetua. Eratzun bat izango du: bakuna, bikoitza, goialdean edo behealdean. Era berean, igurtzitzean edo presioaren aurrean erreakzio handiagoa edo txikiagoa izaten du, eta batzuetan errezelaren hondakinak ageri ditu azaleran.

Espezie batzuetan oinak sustraiak izaten ditu eta sustrai horiek aztertzen ditugu alea arreta handiz atera ondoren.

CARACTERES DETERMINANTES:

La determinación de las especies del género *Agaricus*, no resulta siempre fácil, es por ello por lo que en este trabajo analizamos con detalle los distintos caracteres tanto macro como microscópicos y las distintas reacciones químicas sobre la carne de los carpóforos.

A lo largo de diez años de estudio hemos recolectado numerosos ejemplares en distintas zonas del País Vasco y territorios limítrofes. De estas recolectas separamos un total de 52 táxones distintos y conservamos un total de 300 exsiccatas que están depositadas en el herbario de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Entre los caracteres macroscópicos a analizar, tenemos en cuenta las dimensiones, color, forma del pie y del sombrero, color de las láminas, color de la carne a la sección, olor al frote y características detalladas del anillo.

Entre las reacciones químicas prestamos una mayor atención a la reacción de "Schaeffer", que nos permite separar dentro del género a un grupo bastante numeroso de especies. En un menor grado se utiliza el hidróxido potásico al 10%, el alcohol, la anilina pura y el sulfato ferroso al 10%.

Los caracteres microscópicos más importantes se refieren a la forma y dimensiones de las esporas, de los queilocistidios y de los basidios. Los pleurocistidios son prácticamente inexistentes en este género.

Analizamos así mismo el hábitat, forma de crecimiento de los carpóforos y el suelo sobre el que se desarrollan.

EL SOMBRERO:

Además de las dimensiones, su forma de joven y desarrollado, tomamos nota de su color, ornamentación y presencia en el borde del mismo de restos del velo.

El color de fondo, la reacción de la cutícula al frote y el olor, son también caracteres importantes para la determinación de la especie.

EL PIE:

Siempre central y más o menos largo, presentará uno o varios de estos caracteres: lleno, fistuloso, bulboso, cilíndrico, clavado, engrosado o atenuado. Estará adornado con un anillo: simple, doble, súpero o ínfero. Reacciona así mismo en un mayor o menor grado al frote o a la presión y presenta en ocasiones en su superficie restos del velo general.

En algunas especies el pie tiene raíces que observamos arrancando el ejemplar con cuidado.

ERAZTUNA:

Agaricus generoan eraztuna honako era hauetakoa izan daiteke: oinaren goialdetik beheranzkoa, oinarritik goranzkoa sasibolba baten moduan, edo bitarikoa, hau da, bi eraztun mota horiek osatua. Osaerari dagokionean, bakuna edo bikoitza izango da, eta hondakin linealak, ezkatak edo gurpil horztunaren itxurakoak izango ditu. Kasu gehienetan, eraztunaren gehiengoa errezel himenialak osatzen du, eta errezel horren azpialdean ezkata, kotoi-antzeko edo gurpil horztunaren itxurako hondakinak itsasten dira batzuetan.

Batzuetan bi errezel horiek garrantzitsuak izaten dira *Agaricus bisporus* espeziean, esate baterako, kasu horretan errezel himenialak eta errezel orokorrak osatzen baitute eraztuna.

Errezel orokorra askotan hautsi egiten da onddoa haztean, eta eraztunaren azpialdean besokoak edo ezkatak eraten ditu, *Agaricus cupreobrunneus*-en kasuan, esate baterako.

Bi errezelak oso sendoak ez direnean, eraztuna soldatu eta kotoi itxurako barriltoetan banatzen da, *Agaricus campestris*-en kasuan, esate baterako.

Agaricus bitorquis espeziean errezel himeniala ez da bat ere sendoa eta errezel orokorra oinari itsatsita geratzen da bolba edo koskoa osatuz. Errezelaren goiko aldeak eraztun bat eraten du bi torke edo besokorekin.

Oro har, esan daiteke txapela ireki eta garatu aurretik orriak oinaren goialdetik txapel-azalaren ertzeraino babesten dituen organoa dela errezel himeniala.

Aldiz, errezel orokorrak erabat estaltzen du karpoforo gaztea, *Agaricus floccipes* espeziearen kasuan argi eta garbi ikus daitekeen bezala, eta txapel-azalaren ertzaren parean hausten denean agerian uzten ditu oinaren goialdea eta errezel himeniala.

Txapelaren ertzean eta oinaren behealdean, eraztunaren azpian, soilik aurkituko ditugu errezel orokorraren hondakinak.

ORRIAK:

Oinetik berex dira beti. Ale gazte eta freskoetan oso garrantzitsua da biltzen diren uanean orrien kolorea behatzea. Hasieran grisaxkak edo arrosa kolorekoak izan daitezke, kontuan harturik kolore horietako bat ala bestea nabarmentzen den. Zahartzean, marroi ilun samarra, arre purpura edo arre beltzaxka izango da.

Ertzak kolore zurixka izan dezake keilozistidioen presentziagatik, nahiz eta batzuetan heldugabeko basidioek ere itxura hori ematen dioten.

EL ANILLO:

En los *Agaricus* puede ser descendente desde lo alto del pie, ascendente desde la base a modo de una pseudovolva o mixto formado por los dos tipos de anillo. En cuanto a su composición será simple o doble, con restos lineales, con escamas o con rueda dentada. En los casos más corrientes está formado en su mayor parte por el velo parcial, al cual se pegan a veces en su cara inferior restos escamosos, algodonosos o en forma de rueda dentada.

En ocasiones ambos velos son importantes, como por ejemplo en el *Agaricus bisporus*, cuyo anillo está formado por la reunión del velo parcial y general.

El velo general se fragmenta a menudo durante el crecimiento, formando brazaletes o escamas bajo el anillo como en el caso entre otros del *Agaricus cupreobrunneus*.

Cuando los dos velos son poco consistentes, el anillo se suelta y desgaja en barriletes más o menos algodonosos como por ejemplo en el *Agaricus campestris*.

En el *Agaricus bitorquis*, el velo parcial es poco consistente y el general se abraza al pie formando una volva cuya parte superior genera el anillo con dos torques o brazaletes.

En general observamos que el velo parcial es un órgano que protege las láminas antes de la apertura y desarrollo del sombrero, desde lo alto del pie al margen de la cutícula del sombrero.

Al contrario el velo general recubre completamente al joven carpóforo como se puede observar con claridad en el caso del *Agaricus floccipes* y su ruptura a la altura del borde de la cutícula del sombrero pone al descubierto lo alto del pie y el velo parcial.

Únicamente encontraremos restos del velo general en el margen del sombrero y en la parte inferior del pie bajo el anillo.

LAS LÁMINAS:

Son siempre libres. Es muy importante la observación del color de las láminas en los ejemplares jóvenes y frescos en el momento de la recogida. Inicialmente pueden ser grisáceas o rosáceas según destaque uno u otro color, finalmente marrón más o menos oscuro, pardo púrpura o pardo negruzco.

La arista puede tener un color blancuzco por la presencia de queilocistidios, aunque en ocasiones nos encontramos con basidios inmaduros que le confieren este aspecto.

MAMIAREN KOLORE ALDAKETA:

Aztertutako aleetan, mamia kolorez aldatzen da espezieen arabera eta gutxi gora-behera kolore arrosa, gorria, horia, hori kromoa eta gorrixka hartzen du eta baita okre kolorea edo okre-laranja kolorea ere batzuetan. Kolore aldaketa hori biziagoa edo apalagoa izan daiteke eta leku batzuetan besteetan baino nabariagoa izan daiteke.

Espezie batzuetan, *Agaricus maskae*, esate baterako, txapelaren azalak kolore horia eta mamiak, berriz, kolore arrosa izaten duela ikusi dugu. *Agaricus lanipes* espeziean, berriz, mamia gorrixka izaten da txapelean, eta aldiz oinaren oinarriko azalak kolore horia izaten du.

Banaketa egiteko garaian, *Agaricus* generoko espezieak errubeszente edo flabeszente gisa hartzen baditugu ere, konturatu gara espezie batzuetan ia ez dela kolorea aldatzen ebakitzean edo igurtzitzean, eta beste espezie batzuk, berriz, arestian ikusi dugun bezala, errubeszenteak eta flabeszenteak dira aldi berean.

Kolorea aldatu egiten da bildutako aleen adinaren, hezetasunaren eta freskotasunaren arabera. Horrenbestez, ezaugarri horiek guztiak arreta handiz jaso ditugu, espezieak ezagutzeko orduan funtsezkoak baitira.

USAINA:

Usaina ere oso ezaugarri garrantzitsua da *Agaricus* generoko espezieak aztertzerakoan:

º Fungikoa edo onddo-usainak, *Agaricus campestris* espeziearena, esate baterako, eta hori oso normala da beste *Basidiomycete* batzuetan, usain berezirik ez dutela adierazten digu nolabait.

º Anis edo almendra mikatzen usaina, ohikoa espeziekopuru handi batean.

º Fenol-tinta usaina, areagotu egiten da aleak egostean, ohikoa *xanthodermus* taldeko espezieetan.

º Txikoria xigortuaren usaina, espezie batzuetan karpoforoek usain hori izaten dute zahartzean eta ale lehor berrietan.

º Usain atsegina, fruitu-usainaren antzekoa, usain hori izaten dute errubeszenteen taldeko espezie batzuek.

º *Lepiota cristata*-ren usaina, baratxuri eta fruta usaina nahasia, usain hori dute bildutako ale batzuek.

º Usain txarra, arrain, ur zikin, marraga heze edo pixa usaina. Usain hori du *Agaricus maleolens* espezieak, esate baterako, eta baita *macrosporus* taldeko ale helduek ere.

EL CAMBIO DE COLOR DE LA CARNE:

En los ejemplares analizados la carne se tiñe según las distintas especies más o menos de color rosa, rojo, amarillo, amarillo cromo, bermejo e incluso con tonos ocráceos u ocráceo anaranjados. Este cambio de color puede ser más o menos intenso y estar más o menos localizado.

Hemos observado que en algunas especies como por ejemplo el *Agaricus maskae*, la superficie del sombrero puede estar manchada de amarillo y la carne con tonos rosas o en el *Agaricus lanipes*, la carne se presenta más o menos rubescente en el sombrero y sin embargo la superficie de la base del pie tiene tonos amarillos.

Aunque a efectos de división tomemos a los *Agaricus* como rubescentes o flavescentes, nos encontramos con que algunas especies no cambian prácticamente de color a la sección o al frote y que otras especies, tal y como hemos visto, son al mismo tiempo rubescentes y flavescentes.

El color varía en función de la edad, humedad y frescura de los ejemplares recolectados. Éstos caracteres, por lo tanto han sido apuntados con gran cuidado pues son la base para el reconocimiento de las especies.

EL OLOR:

Caracter también muy importante en el estudio de los *Agaricus*:

º Fúngico, por ejemplo el del *Agaricus campestris*, que es muy normal en otros *Basidiomycetes*, nos indica de algún modo la ausencia de olores de particular interés.

º Anisado o de almendras amargas, característico en un número importante de especies.

º Fenol-tinta, aumenta con la cocción de los ejemplares y es característico en las especies del grupo *xanthodermus*.

º Achicoria-torrefacta, se manifiesta en ciertas especies en los carpóforos al envejecer y en las exsiccatas recientes.

º Agradable, más o menos afrutado, que se manifiesta en algunas especies del grupo de las rubescentes.

º De olor característico a *Lepiota cristata*, mezcla de ajo y frutas, presente en alguna de las especies recolectadas.

º Desagradable, de pescado, agua sucia, arpillera húmeda o urinescente. Se manifiesta en especies como el *Agaricus maleolens* y en ejemplares desarrollados del grupo *macrosporus*.

ERREAKZIO MAKROKIMIKOAK:

Erabiliena "Schaefferen" erreakzioa da. Anilina puru eta koloregabeaz eta akuaforte kontzentratuaz era sistematikoan gurutze bat egin dugu txapel-azalean eta batzuetan oinarren oinarriaren azalean.

Erreakzioa positibotzat jotzen da gurutzatzen den puntuak berehala kolore laranja edo gorri-laranja kolorea hartzen badu.

Nahi izanez gero, anilina-olioa uretan emulsionatu daiteke gutxi gora-behera %10ean, eta erabili aurretik ondo nahasi. Akuaforte %50eko kontzentrazioan erabil daiteke.

R. Henry (TL4)-ren erreaktiboa erabil daiteke anilinaren eta akuafortearen orde, baina toxikoa izateaz gainera, erreakzioa motelagoa da, eta granate-ardo kolorea hartuko du erreakzioa positiboa bada.

Alkohol etilikoa eta potasio hidroxidoa %10ean erabili dugu *xanthodermus* taldeko espezieetan. Kasu horretan erreakzio positiboa hori kromo bizia da.

AZTERKETA MIKROSKOPIKOA:

Esporen neurriak, forma eta apaindura aztertzen dira, eta era berean espora horien koloreari erreparatzen diogu mikroskopioan.

Espora-jalkinaren kolorea nahikoa uniforme da, hau da, marroi ilun samarra, arre purpura edo arre beltzaxka.

Basidioak borra-formakoak dira eta kasu gehienetan tetrasporikoak, baina bada espezie bisporiko bat ere, *Agaricus bisporus*. Beste espezie batzuek, *Agaricus gennadii*, esate baterako, basidio bisporikoak izan ditzakete, baina tetrasporikoak baino askoz ere gutxiago beti ere.

Keilozitidioak oso garrantzitsuak dira espezieak bereizterakoan, eta horregatik, kontuan hartzen ditugu haien kopurua, forma eta neurriak.

HABITATA:

Agaricus generoko espezieak era guztietako habitatetan aurki ditzakegu. Espezieetako batzuk nahikoa biotopo zehatzei loturik daude.

Horrenbestez, honako hauek bereiz ditzakegu:

º Larreetako espezieak, *Agaricus campestris*, esate baterako.

º Soroetako lur lehor, belartsu eta azidoetakoak, *Agaricus porphirocephalus*, esate baterako.

REACCIONES MACROQUÍMICAS:

La más utilizada es la reacción de "Schaeffer". Hemos realizado de manera sistemática una cruz sobre la cutícula del sombrero y ocasionalmente en la superficie de la base del pie con anilina pura e incolora y ácido nítrico concentrado.

La reacción se considera positiva si el punto de cruce toma rápidamente un color naranja o rojo-anaranjado.

Si se desea, se puede emulsionar el aceite de anilina en agua aproximadamente al 10%, agitándolo antes de su utilización. El ácido nítrico se puede utilizar en una concentración del 50%.

El reactivo de R. Henry (TL4), puede sustituir a la anilina y al ácido nítrico, pero además de su toxicidad, reacciona más lentamente, dando un tono granate vinoso si la reacción es positiva.

Hemos utilizado alcohol etílico e hidróxido potásico al 10% para las especies del grupo *xanthodermus*, en este caso la reacción positiva es al amarillo cromo intenso.

ESTUDIO DE LA MICROSCOPIA:

Se analizan las dimensiones, forma y ornamentación de las esporas, fijándonos así mismo en el color de las mismas al microscopio.

El color de la esporada en masa es bastante uniforme variando del marrón más o menos oscuro al pardo púrpura o pardo negruzco.

Los basidios son clavados y en la mayoría de los casos tetraspóricos, pero nos encontramos con una especie bisporica, el *Agaricus bisporus*. Otras especies, como por ejemplo *Agaricus gennadii*, pueden presentar algunos basidios bisporicos, pero siempre en un número muy inferior a los tetraspóricos. Analizamos sus dimensiones y la medida de los esterigmas.

Los queilocistidios son de gran importancia en la separación de las especies, para ello tenemos en cuenta su abundancia, forma y dimensiones.

HÁBITAT:

Podemos encontrar *Agaricus* en los hábitat más distintos. Algunas especies están ligadas a biotopos bastante precisos.

Podemos distinguir por lo tanto:

º Especies práticoles o de pastizales, como por ejemplo el *Agaricus campestris*.

º Baso edo oihan, konifera edo hostozabal basoetakoak, edo bitarikoak, *Agaricus silvaticus* edo *Agaricus haemorrhoidarius*, esate baterako.

º Bide eta lur irekietakoak, *Agaricus bitorquis*, esate baterako.

º Lorategi eta zuhaitz arteetan jaiotzen direnak, *Agaricus maleolens* edo *Agaricus xanthodermus*, esate baterako.

º Itsas ertzeko belardi eta lur gazietakoak, *Agaricus bernardii*, esate baterako.

º Kostaldeetako duna finkoetakoak, *Agaricus devoniensis* edo *Agaricus menieri*, esate baterako.

º Espezie erruderalak, jendea bizi den eremuen inguruetan, hauxe da parkeetan, lorategietan, hazten direnak.


Espezie batzuk era askotako habitatean hazten dira, baso edo oihaneko espezieak, esate baterako, belardi edo larretan hazi baitaitezke.

ONDDOAK BILDU DIREN LEKUAK:

Gehienak Euskal Herrian bildu dira, eta Euskal Herriaren barnean Gipuzkoan eta Nafarroan. Araban eta Bizkaian gutxiago ibili gara eta ale gutxiago aurkitu dugu.

Aipamen batzuk Burgosko herrialdeko, Trebiñoko Konderriko eta Landetako oso leku zehatz batzuei dagozkie.

Honekin batera doan mapan 10 Km-ko koadrikulak ikus ditzakegu, U.T.M. koordinadetan 30T eremuan.



º De suelos secos, herbosos y ácidos de prados, como es el caso por ejemplo del *Agaricus porphirocephalus*.

º Silvícolas, bosques de coníferas, de planifolios o mixtos, como por ejemplo el *Agaricus silvaticus* o el *Agaricus haemorrhoidarius*.

º En caminos y terrenos abiertos, por ejemplo *Agaricus bitorquis*.

º Jardines, claros de arboles, por ejemplo *Agaricus maleolens* o *Agaricus xanthodermus*.

º Prados al borde del mar, terrenos salados, por ejemplo *Agaricus bernardii*.

º Dunas fijas de zonas costeras, por ejemplo *Agaricus devoniensis* o *Agaricus menieri*.

º Especies ruderales, crecen cercanas a zonas habitadas, tales como parques y jardines.

Algunas especies nacen en diferentes hábitat, como por ejemplo especies silvícolas que pueden crecer en prados o pastizales.

ÁREA DE RECOLECCIÓN:

La mayoría de las recolectas se han realizado en el País Vasco y dentro del mismo en las provincias de Guipuzcoa y Navarra. En un menor grado y también en un menor número de ocasiones se han recogido ejemplares en las provincias de Alava y Vizcaya.

Algunas citas se refieren a zonas limítrofes muy concretas de la provincia de Burgos, del condado de Treviño y de las Landas francesas.

En el mapa adjunto podemos ver las cuadrículas de 10 Km., con las coordenadas U.T.M. referidas a la zona 30T.



JATEKO ONAK ALA EZ:

Espezie gehienak jateko ontzat hartzen dira eta batzuk merkataritza mailan lantzen dira, *Agaricus bisporus* eta *Agaricus bitorquis*, esate baterako.

"Errubeszenteen" taldean, bakanak eta usain txar samarra izateagatik, honako *Agaricus* hauek ez ditugu jateko ontzat hartzen: *A. maleolens*, *A. gennadii*, *A. devoniensis* eta *A. bernardii*.

Era berean, neurri handian ala txikian toxikoak eta usain txarrekoak dira *xanthodermus* taldeko espezieak, espezie horiek igurtzitzean kolore hori kromoa hartzen dute bereziki oinaren oinarrian eta txapelaren ertzean. Duten fenol edo tinta usaina areagotu egiten da egosterakoan.

Azken azterketa toxi-mikologikoez errepide inguruetako, leku ongarritueta edo poluzio-mailaren bat duten lekuetako *Agaricus* ez jatea gomendatzen dute, giza gorputzarentzat kaltegarriak edo toxikoak izan daitezkeen hainbat substantzia zurgatzeko ahalmen handia baitute karpoforoek. Horrenbestez, arau ona da *Agaricus* generoko espezie gehiegi ez jatea.

ESKERTZAK:

Luis Alberto Parra Sanchez eskerrak eman nahi dizkiot lan hau berrikusteagatik, eginiko oharkizunengatik, eta uneoro eskuzabaltasun osoz eskaini didan laguntzagatik.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet, Aranzadi Zientzi Elkarteko Mikologia Saileko kideei: Xabier Laskibar, Jose Manuel Lekuona, Juan Ignacio Iturrioz, Juan Ferreño, Paco Sainz, Jose Luis Albisu, Alejandro Iñiguez, Miguel Ajarnaute eta Anton Melendez, eman didaten laguntzagatik eta ekarritako diapositiba eta aleengatik eta, oro har, esker aunitz urte hauetan zehar lagundu didaten Saileko kide aktibo guztiei.

Juantxo Aguirreri, Aranzadi Zientzi Elkarteko Idazkaria bera, ahalegin eta kudeaketa ugari egin ondoren, lan hau argitara atera dadin lortu izanagatik.

Eskerrak nire emazteari Iciar eta Mikel, Jon eta Ainhoa seme-alabei ere azterketa honi eskaini dizkiodan ordue-tan pazientzia eta ulermena erakusteagatik.

COMESTIBILIDAD:

La mayoría de las especies están consideradas como comestibles y algunas se cultivan a nivel comercial como es el caso del *Agaricus bisporus* y *Agaricus bitorquis*.

No debemos considerar como comestibles en el grupo de las "Rubescetes" por su rareza y olor más o menos desagradable a los *Agaricus*: *A. maleolens*, *A. gennadii*, *A. devoniensis* y *A. bernardii*.

Así mismo son más o menos tóxicos y malolientes los del grupo *xanthodermus*, que toman tonos amarillo cromo al frote sobre todo en la base del pie y borde del sombrero. Su olor a fenol o tinta se acentúa en la cocción.

Los últimos estudios toxi-micológicos aconsejan no consumir *Agaricus* de lugares cercanos a carreteras, abonados o con algún grado de polución por la capacidad que tienen los carpóforos de absorber diversas sustancias que pueden resultar más o menos acumulativas a la vez que tóxicas para el organismo humano. Es por lo tanto una buena regla la de no abusar en el consumo de las especies del género *Agaricus*.

AGRADECIMIENTOS:

Quiero agradecer a Luis Alberto Parra Sanchez, la revisión de este trabajo, sus observaciones sobre el mismo y la desinteresada ayuda prestada en todo momento.

Mi agradecimiento también a los miembros del Dpto. de Micología de la S.C. Aranzadi Xabier Laskibar, Jose Manuel Lekuona, Juan Ignacio Iturrioz, Juan Ferreño, Paco Sainz, Jose Luis Albisu, Alejandro Iñiguez, Miguel Ajarnaute y Antón Melendez, tanto por la ayuda prestada como por las diapositivas y los ejemplares aportados y en general a todos aquellos miembros activos del Departamento que durante estos años me han apoyado.

A Juantxo Aguirre, Secretario de la S.C. Aranzadi, que con su esfuerzo y numerosas gestiones, ha logrado que esta obra vea la luz.

A mi mujer Iciar y a mis hijos Mikel, Jon y Ainhoa por su paciencia y comprensión durante las horas dedicadas a este estudio.

BIBLIOGRAFÍA:

- ARRILLAGA, P.
1998 El género *Agaricus* L.: Fr. en el País Vasco. *Agaricus lanipes* (Möller et J. Schäffer) Singer. *Munibe Ciencias Naturales*, 50: 99-100.
- ARRILLAGA, P. & PARRA, L. A.
1998 El género *Agaricus* en España. VII. *Agaricus aestivalis* (F.H. Möller) Pilát. Primera cita en España. *Munibe Ciencias Naturales*, 50: 3-6.
- BOHUS, G.
1990 *Agaricus* studies, XI. Amonographical key. *Ann. Hist. Natl. Hung.*, 82: 30-59.
- BOISSELET, P.
1993 *Bull. Féd. Myc. Dauphiné-Savoie*, 131: 25-30.
- BON, M.
1985 Clé monographique du genre *Agaricus* L.:Fr. *Doc. Mycol.* 15(60): 1-35.
- BREITENBACH, J. & KRÄNZLIN, F.
1995 *Champignons de Suisse. Vol. 4*: 160-183.
- CAPPELLI, A.
1984 *Agaricus* L.:Fr., (*Psalliota* Fr.). *Fungi europaei*. Saronno. Italia.
- ESSETTE, H.
1964 *Les Psalliotas*. Editions Paul Lechevalier. Paris.
- HEINEMANN, P.
1978 Essai d'une clé de determination des genres *Agaricus* et *Micropsalliota*. *Sydowia*, 30: 6-37.
- MESPLEDE, H.
1981 Le genre *Psalliota*. Revision. *Bull. Soc. Mycol. Béarn*, 74.
- MÖLLER, F. H.
1949 Danish *Psalliota* species. *I-Friesia IV*.
- NAUTA, M.M.
2001 *Agaricus* L. En Noordeloos, M.E., Kuyper, T.H. & Vellinga, E.C.: *Flora agaricina Neerlandica*, 5. A.A. Balkema Publishers. Tokyo, 5: 23-61.
- PARRA, L.A.
1995 The genus *Agaricus* L.: Fr. in Spain. I. *Agaricus rollanii* sp. nov. *Bol. Soc. Micol. Madrid*, 20: 131-139.
- PARRA, L.A.
1997 El género *Agaricus* L.: Fr. en España. III. Delimitación y estudio de la sección Bitorques. *Bol. Soc. Micol. Madrid*, 22: 113-135.
- PARRA, L.A.
2003 *Fungi non delineati, Pars XXIV*. Contribution to the knowledge of genus *Agaricus*. Candusso, Alassio. Italia.
- PARRA, L.A. & PÉREZ, P.
2003 Cuadernos de trabajo de Flora micológica Ibérica, *Consejo superior de Investigaciones Científicas. Madrid*, 19: 11-104.
- PHILLIPS, R.
1981 *Les Champignons*. Editions Solar. France.
- WASSER, S.P.
1989 Tribe Agaricaceae Pat. of the Soviet Union. *Koeltz Sciientifics Books, Koenigstein*.

ESPEZIEEN AURKIBIDEA / INDICE DE ESPECIES

Orrialde / Página

<i>Agaricus bitorquis</i> (Quél.) Sacc.	25
<i>Agaricus bitorquis var. validus</i> (F. H. Möller) Bon & Cappelli	28
<i>Agaricus devoniensis</i> P. D. Orton	29
<i>Agaricus maleolens</i> F. H. Möller	32
<i>Agaricus gennadii</i> (Chatin & Boud.) P. D. Orton	36
<i>Agaricus bisporus</i> (J. E. Lange) Imbach	40
<i>Agaricus bisporus var. albidus</i> (J. E. Lange) Singer	43
<i>Agaricus bisporus var. avellaneus</i> (J. E. Lange) Singer	43
<i>Agaricus campestris</i> L.: Fr.	47
<i>Agaricus campestris var. squamulosus</i> (Rea) Pilát	50
<i>Agaricus moellerianus</i> Bon	51
<i>Agaricus cupreobrunneus</i> (Jul. Schäff. & Steer) Pilát	55
<i>Agaricus porphyrocephalus</i> F. H. Möller	59
<i>Agaricus vaporarius</i> (Pers.) Cappelli	62
<i>Agaricus sylvaticus</i> Schaeff.	69
<i>Agaricus impudicus</i> (Rea) Pilát	73
<i>Agaricus haemorrhoidarius</i> Schulzer	77
<i>Agaricus fuscofibrillosus</i> (F. H. Möller) Pilát	80
<i>Agaricus lanipes</i> (F.H. Möller & Jul. Schäff.) Singer	85
<i>Agaricus squamuliferus</i> (F. H. Möller) Pilát	89
<i>Agaricus langei</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	93
<i>Agaricus langei var. mediofuscus</i> (F. H. Möller) Wasser	95
<i>Agaricus depauperatus</i> (F. H. Möller) Pilát	96
<i>Agaricus arvensis</i> Schaeff.	103
<i>Agaricus arvensis var. macrolepis</i> Pilát & Pouzar	106
<i>Agaricus fissuratus</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	108
<i>Agaricus nivescens</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	111
<i>Agaricus maskae</i> Pilát	114
<i>Agaricus macrosporus</i> (F. H. Möller & Jul. Schäff.) Pilát	117
<i>Agaricus excellens</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	119
<i>Agaricus macrosporus var. stramineus</i> (F. H. Möller & Jul. Schäff.) Bon	120
<i>Agaricus sylvicola</i> (Vittad.) Sacc.	123
<i>Agaricus essettei</i> Bon	126
<i>Agaricus aestivalis</i> (F. H. Möller) Pilát	129
<i>Agaricus augustus</i> Fr.	133
<i>Agaricus porphyrizon</i> P.D. Orton	137
<i>Agaricus comtulus</i> Fr.	143
<i>Agaricus lutosus</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	146
<i>Agaricus semotus</i> Fr.	149
<i>Agaricus purpurellus</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	152
<i>Agaricus niveolutescens</i> Huijsman	155
<i>Agaricus luteomaculatus</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	158
<i>Agaricus xantholepis</i> (F. H. Möller) F. H. Möller	161
<i>Agaricus xanthodermus</i> Genev.	167
<i>Agaricus xanthodermus var. lepiotoides</i> Maire	170
<i>Agaricus praeclaresquamosus</i> A. E. Freeman	173
<i>Agaricus pilatianus</i> Bohus	177
<i>Agaricus menieri</i> Bon	180
<i>Agaricus laskibarii</i> L.A. Parra & Arrillaga	184
<i>Agaricus pseudopratisensis</i> (Bohus) Wasser	187
<i>Agaricus pseudopratisensis var. niveus</i> Bohus	190
<i>Agaricus romagnesii</i> Wasser	193

ALDAKETAK ESPEZIEEN NOMENKLATURAN

Donostia/San Sebastián 2004ko otsailak 11.

Honako zerrenda honetan jaso dira lan hau amaitzean aurkitutako nomenklatura aldaketak.

LEHEN / ANTES

A. lanipes (F.H. Möller & Jul. Schäff.) Singer

A. maskae Pilát

A. macrosporus (F.H. Möller & Jul. Schäff.) Pilát

A. sylvicola (Vittad.) Sacc.

A. aestivalis (F.H. Möller) Pilát

A. semotus Fr.

CAMBIOS EN LA NOMENCLATURA DE LAS ESPECIES

Donostia/San Sebastián a 11 de febrero de 2004.

Los cambios de nomenclatura detectados al finalizar esta obra se recogen en este listado.

ORAIN / AHORA

A. lanipes (F.H. Möller & Jul. Schäff.) Hlaváček

A. litoralis (Wakef. & Pearson) Pilát

A. urinascens (Jul. Schäff & F.H. Möller) Singer

A. sylvicola (Vittad.) Peck

A. alboericeus Rauschert

A. dulcidulus Schulzer

AGARICUS L.: Fr. GENEROKO SAIL DESBERDINAK ZEHAZTEKO GAKOA

1a.- Mami zurixka eta ebakitzean gorri samarra duten espezieak, batzuetan oso mami argia, beste batzuetan nabar-gorrixka baina horitzen ez dena, usain aldakorra, garratz atsegina, onddo, kortxo edo marraga heze, arrain, *Lepiota cristata*, erregaliz-kakao usaina, baina inoiz ere ez urineszentea, ezta almendra mingotsena ere.

-*Agaricus moellerianus*: anis usain suntsikorra txapel-azalean. RS (±) txapel-azalean.

-*Agaricus lanipes*: gehienetan anis-almendra usaina zurtoinaren oinarrian, kasu honetan. RS (+).

-*Agaricus bresadolanus*: txapelaren azalean eta zurtoinaren oinarrian. RS (±).

RS gehienetan (-)..... 2

1b.- Azal hori samarra duten espezieak, anis usaina argi eta garbi, almendra mingots, fenol-tinta edo iodo usaina, mamia zuri horixka edo hori-laranja edo gorrixka. *Arvenses* eta *Minores* sailak. RS gehienetan (+).

Zalantzakoa edo ahula *A. maskae* eta *A. macrosporus* espezieetan.

Oso gutxitan ahula edo berantiarra *A. aestivalis* espeziean. RS (-) *Xanthodermatei* sailean 4

2a.- Eratzuna behealdean duten espezieak, sasikosko moduan edo bi torkerekin, bitariko eratzuna, goialdean eta behealdean, errezel partzial eta orokorra elkartzean sortuak. RS (-)..... BITORQUES SAILA

2b.- Beste ezaugarri batzuk 3

3a.- Eratzuna goialdean edo errezel orokorraren hondakin batzuk gorantz, eta goialdeko eratzuna hobeto definitua dituzten espezieak, haragi gorrixka edo nabar-gorrixka, gehienetan landan hazten direnak, basotik kanpo .. AGARICUS SAILA

3b.- Gehienetan eratzuna beherantz duten espezieak, ale helduetan garbiagoa, askotan ezkata nabarrak azpialdean, oso mami gorria, eta gehienetan basoan hazten direnakSANGUIOLENTI SAILA

4a.- Almendra mingotsen usaina duten espezieak, anis usaina edo urineszentea ale zahar edo oso helduetan, neurri ertain-handikoak, eta txapela 7-8 cm baino >, 25-30 cm diametro artekoa espezie batzuetan ARVENSES SAILA

4b.- Anis edo almendra mingotsen usaina duten espezieak, neurri txikia ± 2-5 cm, 7-8 cm arte soilik *A.luteomaculatus* eta *A.xantholepis* motek, zurtoinaren oinarria horixka eta hori-gorrixka. RS (+) MINORES SAILA

4c.- Tinta-fenol usain garbia edo batzuetan iodo usain ahul samarra duten espezieak, mami horixka eta hori-kromo kolorea bereziki zurtoinaren oinarrian eta txapelaren ertzean, espezie batzuetan zertxobait horixka edo gorrixkak ere batzuetan, baina beti ere fenol edo tinta usain garbia. RS(-). Soilik *A.menieri* motak izaten du batzuetan erreakzio (+), eta anis usaina zurtoinaren oinarri aldera XANTHODERMATEI SAILA

CLAVE PARA LA DETERMINACIÓN DE LAS DISTINTAS SECCIONES DEL GÉNERO AGARICUS L.: Fr.

1a.- Especies con la carne blancuzca y más o menos rubescente a la sección, en ocasiones muy débilmente, a veces pardo rojizo pero no amarilleante, olor variable, ácido agradable, fúngico, a corcho o arpillera húmeda, pescado, *Lepiota cristata*, regaliz-cacao, pero nunca urinescente ni de almendras amargas.

-*Agaricus moellerianus*: anisado evanescente en la cutícula. RS (±) en la cutícula.

-*Agaricus lanipes*: generalmente anisado-almendra base del pie, en ese caso. RS (+).

-*Agaricus bresadolanus*: superficie del sombrero y base del pie. RS (±).

RS en general (-) 2

1b.- Especies con la superficie más o menos amarilleante, con olor claramente anisado, de almendras amargas, de fenol tinta o yodado, carne más o menos blanco amarillenta a amarillo anaranjado o bermejo. Secciones *Arvenses* y *Minores*. RS en general (+).

Dudosa o debil, en *A. maskae* y *A. macrosporus*. Rara vez debil y tardía en *A. aestivalis*.

RS (-) en la Sección *Xanthodermatei*.....4

2a.- Especies con anillo ínfero, a modo de pseudovolva o con dos torques, con anillo mixto súpero e ínfero procedentes de la unión del velo parcial y general. RS (-).....SECCIÓN BITORQUES

2b.- Otros caracteres3

3a.- Especies con anillo súpero o con algunos restos del velo general ascendentes y anillo súpero mejor definido, carne ligeramente rubescente o pardo rojizo, crecimiento en general campestre, fuera del bosque.....SECCIÓN AGARICUS

3b.- Especies con anillo en general descendente, más evidente en los ejemplares desarrollados, a menudo con escamas parduscas en su cara inferior, carne muy enrojeciente y crecimiento sobre todo boscosoSECCIÓN SANGUIOLENTI

SOMBRERO: de (4)8-15(20) cm., en general grande y carnoso, aunque pueden presentarse ejemplares pequeños, hemisférico, troncocónico o anchamente umbonado, de marrón a pardo oscuro, inicialmente liso, luego fibriloso o con anchas escamas irregulares sobre fondo apenas más claro, margen involuto y algo apendiculado.

HIMENIO: formado por láminas estrechas, inicialmente rosa-grisáceo, luego pardo-oscuro con tono rojizo.

PIE: en general robusto, de 3,5-12(15) x 1,5-3(5) cm., clavado a subradicante, a veces con el centro engrosado, de color blancuzco que pardea con facilidad. Base más o menos adornada de restos oscuros del velo, irregulares, fugaces, a veces subperonados, manchada de marrón pardusco. Anillo bastante amplio con la parte inferior con más o menos escamas marrones, frágil al final lacerado.

CARNE: blanco-sucio, manchándose a la sección de marrón-rojizo, con tonos amarillo-ocráceo en la zona superficial del sombrero. Olor dulzón, a regaliz, perfumado-achocolatado. Reacciona al verde oliva con sulfato férrico y al rojo sangre con anilina.



513-28/6/99

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: (5,5)6-7,5(8) x (4,5)5-6(6,5) μm -koak, pareta lodia.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, batzuk bisporikoak, 25-35 x 8-10 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: zilindrikoak eta borra-formakoak, 25-50 X 6-10(12) μm -koak, multzoetan, batzuk bi edo hiru trenkadarekin.

TXAPEL-AZALA: 60-70 x 7-10 μm -inguruko hifa ia paralelo eta pigmentatuez osatua.

Caracteres microscópicos:

ESPORAS: de (5,5)6-7,5(8) x (4,5)5-6(6,5) μm ., pared gruesa.

BASIDIOS: tetraspóricos, algunos bispóricos, de 25-35 x 8-10 μm .

QUEILOCISTIDIOS: cilíndricos a clavados, de 25-50 X 6-10(12) μm ., en grupos, algunos con dos o tres septos.


CUTÍCULA: formada por hifas subparalelas, pigmentadas de más o menos 60-70 x 7-10 μm .

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduma, ARAN 513. zk.

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 513.

***Agaricus vaporarius* (Pers.) Cappelli**

Habitat eta oharrak:

Uda-udazkeneko espeziea da, ongarritutako lorategi eta lurretan ateratzen da bereziki. Espezie hau multzo handietan ager daiteke. Txapel-azalaren neurria eta kolorea aldatu egiten dira. *Agaricus subperonatus* espeziearen antzekoa da oso, eta egile batzuek berdintzat hartzen dituzte.

Intxaurrendoko Lorategietan, 99/06/28an, U.T.M. WN 8695.-Cap Breton, pinu artean hondarretan, 99/11/3an, U.T.M. XP 2637.-J. Intxaurrendon, lorategietan, 00/04/15ean, U.T.M. WN 8695.

Ohartu gara bildutako aleren batek ezaugarri gurutzatu samarrak dituela, esate baterako, *A. Vaporarius* espeziearen itxura eta mikroskopia *A. Subperonatus* espeziearen antzekoak dira, eta horrek espezie bakar bateko forma edo motak ote diren pentsarazten digu.

Hábitat y observaciones:

Especie de verano-otoño, que sale sobre todo en jardines y tierras abonadas. Los ejemplares pueden presentarse en grupos numerosos. Es variable en dimensiones y color de la cutícula. Tiene un gran parecido con el *Agaricus subperonatus*, al cual algunos autores lo sinonimizan.

Jardines de Intxaurrendon, 28/06/99, U.T.M. WN 8695.-C'ap Breton, claro de pinar en la arena, 3/11/99, U.T.M. XP 2637.-J. Intxaurrendon, jardines, 15/04/00, U.T.M. WN 8695.

Hemos observado que algunas recolectas presentan caracteres más o menos cruzados, por ejemplo porte de *A. vaporarius* y microscopía más próxima a *A. subperonatus*, lo que nos hace pensar que se trata de formas o variedades de una misma especie.



513-11/6/02



513-15/4/00



513-25/10/02

RUBESCENTES / ERRUBESZENTEAK

SECCIÓN *SANGUINOLENTI* SAILA

GRUPO *SILVATICUS* TALDEA
GRUPO *FUSCOFIBRILLOSUS* TALDEA
GRUPO *LANGEI* TALDEA
GRUPO *ALTIPES* TALDEA

Agaricus sylvaticus* Schaeff.*Ezaugarri makroskopikoak:**

TXAPELA: 6-10 cm diametrokoa, ez oso mamitsua, txapel-azalak oso kolore aldakorra du, kolore arre-grisaxka, arre-marroia eta ezkatat nabarmen samarrak, kolorez marroi-gorrixka, arre-arrosa eta arre-grisaxkak hondo argi samarrear, diskoa ilunagoa eta gehienetan leuna.

HIMENIOA: orri ez oso zabalez osatua, arrosa argiak hasieran, gero marroi-arrosa ilun samarrak, oinetik bereiz, igitai-formakoak eta ertzak zurixkak.

OINA: 6-11 x 1-1,5 cm-koa, 2 cm ere izan ditzake oinarrian. Oinarria erraboiladun samarra da, kofaduna, zuria eta zuri-grisaxka, ia leuna edo haritsu-ezkatatsu samarra. Eraztuna goialdean, fina, leuna edo apur bat ildaskatua mutur aldera, batzuetan ezkata arrexkak behealdean.

MAMIA: usain arin atsegina, apur bat fungikoa, kolore gorri-laranja eta gorri bizia hartzen du ebakitzean, lehenengo gorri-laranja eta segundo batzuk igaro ondoren gorri-odol kolorea arrosa samarra. Schaefferren erreakzioa negatiboa.

Agaricus sylvaticus* Schaeff.*Caracteres macroscópicos:**

SOMBRERO: de 6-10 cm. de diámetro, no muy carnoso, con la cutícula de color muy variable, con tonos pardo grisáceo, pardo marrón y escamas más o menos contrastadas de tonos marrón rojizo, pardo rosáceo, pardo grisáceo sobre fondo más o menos pálido, disco más oscuro y generalmente liso.

HIMENIO: formado por láminas no muy anchas, rosáceo claro al principio, luego marrón rosáceo más o menos oscuro, libres del pie, más o menos falciformes y con la arista blanquizca.

PIE: de 6-11 x 1-1,5 cm., hasta 2 cm. en la base que es un poco bulbosa, fistuloso, de color blanco a blanco grisáceo, casi liso o más o menos fibrilloso-escamoso. Anillo alto, fino, liso o un poco estriado hacia el ápice, a veces con escamas parduscas en su cara inferior.

CARNE: con olor ligero agradable, algo fúngico, enrojecimiento mediano a fuerte al corte, primero al rojo anaranjado y después de unos segundos al rojo sangre más o menos rosado. Reacción de Schaeffer negativa.



514-21/11/94

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: eliptikoak eta eliptiko-arrautza formakoak, 4,5-6(6,5) x 3-4 μm -koak.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, 20-30 x 6-7 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira, borra zabalaren formakoak, 15-28(35) x 7-12(15) μm -koak.

Caracteres microscópicos:

ESPORAS: elípticas a elíptico-ovoides, de 4,5-6(6,5) x 3-4 μm .

BASIDIOS: tetraspóricos, de 20-30 x 6-7 μm .


QUEILOCISTIDIOS: numerosos, anchamente clavados, de 15-28(35) x 7-12(15) μm .

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduma, ARAN 514. zk.

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 514.

***Agaricus sylvaticus* Schaeff.**

Habitat eta oharrak:

Espezie hau konifera basoetan sortu ohi da, baina hostozabal basoetan ere sor daiteke. Behin batean larre batean ale batzuk aurkitu ziren Ipuru batzuen babesean.

Donostian, Miramon Parkean, 94/11/21ean, U.T.M. WN 8293.- Urbasan, 94/12/02an, U.T.M. WN 6743.- Izei batzuen azpian, 95/01/13an.

Itxura askotakoak izaten dira, eta horregatik, mota ugari sortu dira:

- *A. sylvaticus* var. *saturatus*; txapela haritsu-ezkatatsua goa du, arre-gorrixka.
- *A. sylvaticus* var. *fagetorum*; hostozabalen azpian sortzen da, ezkatat bereziagoak eta argiagoak ditu.
- *A. sylvaticus* var. *pallidus*; txapela zurixka eta okre koloreko ezkata txikiak.
- *A. sylvaticus* var. *fuscoesquamatus*; ezkata arre-bel-tzaxkak hondo argian.

Gutxi gora-behera antzeko espezieak dira:

A. langei, *A. haemorrhoidarius*, *A. fuscofibrilosus* eta *A. impudicus*. Lehenengoak esporak nabarmen handiagoak ditu, bigarrenak, nire iritziz, beste espezie batean sailkatzeko moduko alde garbirik ez du mikroskopikoki.

Hábitat y observaciones:

Espezie más común en bosques de coníferas, aunque puede salir también en planifolios. Una vez se recolectaron ejemplares en un pastizal al abrigo de Enebros.

San Sebastián, Parque de Miramón, 21/11/94, U.T.M. WN 8293.- Sierra de Urbasa, 02/12/94, U.T.M. WN 6743.- Bajo abetos, 13/01/95.

Su aspecto es muy variable, lo que ha dado lugar a la creación de numerosas variedades:

- *A. sylvaticus* var. *saturatus*; con sombrero más fibrillo-escamoso, de color pardo rojizo.
- *A. sylvaticus* var. *fagetorum*; bajo planifolios, con escamas más separadas y *pálidas*.
- *A. sylvaticus* var. *pallidus*; con sombrero blancuzco y pequeñas escamas ocráceas.
- *A. sylvaticus* var. *fuscoesquamatus*; con escamas pardonegruzcas sobre fondo pálido.

Especies más o menos próximas son:

A. langei, *A. haemorrhoidarius*, *A. fuscofibrilosus* y *A. impudicus*. El primero de ellos tiene las esporas claramente mayores, el segundo, en mi opinión, no tiene diferencias microscópicas tan claras como para poder separarlo en una especie distinta.



514-22/9/02



514-25/10/00

***Agaricus impudicus* (Rea) Pilát**

Sin.: *Agaricus variegans* Möller, *Agaricus brunneolus* (J. Lange) Pilat, *Agaricus reai* Bon.

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: 5-12 cm diametrokoa, hasiera batean esferardi-formakoa, gero ganbila, zahartzean aski laua, zenbaitetan erdialdea pixka bat loditua. Hondo zurixkaren gainean arre-txokolate koloreko ezkata zentrokideetan bananduriko txapel-azala, ertza argiagoa, erdialdea kolorez marroi iluna, zenbaitetan marroi-gorrixka, purpura-ardo kolorekoa edo purpura-gorrixka.

HIMENIOA: orriak oinetik berex, ez oso zabalak, hasieran argiak, gero arrosa-haragi kolorekoak eta zahartzean marroia eta purpura-arreak.

OINA: 6-12 x 0,8-2,5 cm-koa, zilindrikoa, oina aski erraboaduna edo loditua, sarri askotan mizelio-lokarrikin, kolorez zurixka, haritsua, zenbaitetan zonatu samarra eta oinarrian arre kolorea nagusitzeko joera.

ERAZTUNA: goialdean eta bakuna, mintzekoa, oinarren goiko herenean kokatuta, zenbaitetan arre koloreko ezkata zentrokide samarrekin.

MAMIA: zuria edo arrosa samarrak oinak eta txapelak bat egiten duten puntuan. Fruitu eta baratxuri nahasiei darien usaina, gutxi gora-behera lepiota cristata espeziearen antzekoa. Schaefferren erreakzioa, negatiboa.

***Agaricus impudicus* (Rea) Pilát**

Sin.: *Agaricus variegans* Möller, *Agaricus brunneolus* (J.Lange) Pilat, *Agaricus reai* Bon.

Caracteres macroscópicos:

SOMBRERO: de 5-12 cm. de diámetro, inicialmente semiesférico, luego convexo, al final más o menos aplastado, a veces con el centro ligeramente engrosado. Cutícula disociada en escamas concéntricas de color pardo-chocolate sobre fondo blancuzco, margen más pálido, centro de color marrón oscuro, en ocasiones con color marrón-rojizo, púrpura-vinoso o púrpura-rojizo.

HIMENIO: formado por láminas libres, no muy anchas, de color claro al principio, luego rosa-carnicino, al final marrón a pardo púrpura .

PIE: de 6-12 x 0,8-2,5 cm., cilíndrico, con la base más o menos bulbosa o engrosada, a menudo con cordones miceliares, de color blancuzco, fibrilloso, a veces algo zonado y con tendencia a pardear en la zona basal.

ANILLO: alto, simple, membranoso, situado en el tercio superior del pie, en ocasiones con escamas parduscas más o menos concéntricas.

CARNE: blanca o ligeramente rosada en la zona de unión del pie con el sombrero, de olor mezcla de fruta y ajos, más o menos parecido al de la lepiota cristata. Reacción de Schaeffer negativa.



515-27/10/00

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: marroi-iluna espora-jalkinean, eliptikoak/arrautza-formakoak, gutula bat edo birekin, 4,5-6,5 x 3-3,5 μm -koak.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, 20-25 x 6-8 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: borra zabalaren formakoak, ia arrautza-formakoak 10-25 x 8-12 μm -koak.

Caracteres microscópicos:

ESPORAS: marrón oscuro en masa, elíptico-ovoides, con una o dos gúttulas, de 4,5-6,5 x 3-3,5 μm .

BASIDIOS: tetraspóricos, de 20-25 x 6-8 μm .


QUEILOZISTIDIOS: anchamente clavados, subovoideos, de 10-25 x 8-12 μm .

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman, ARAN 515. zk.

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 515.

***Agaricus impudicus* (Rea) Pilát**

Habitat eta oharrak:

Konifera basoetan hazten da, oso arrunta da udan eta udazkenean Euskal Herriko *Pinus insignis* basoetan.

Landarbason, *Pinus insignis* baten azpian, 94/10/7an eta 9an, U.T.M. WN 8991.- Landarbason, belardi batean, 00/10/27an, U.T.M. WN 8990.

Agaricus koelerionensis Bon espeziearen antzekoa da, koloreak lilagoak baditu ere, esporak 6-7,5(8) x 3-3,5(4) μm -koak.

Ez da asko gorritzen espezie honetako mamia, eta gainera atal batzuetan baino ez da gorritzen, eta horrexek bereizten du *A. silvaticus* espezieetik. *Lepiota cristata* espeziearen antzeko usaina du eta horrek ere bereizten du.

Hábitat y observaciones:

En bosques de coníferas, común en verano y otoño en los bosques de *Pinus insignis* del País Vasco.

Landarbaso, bajo *Pinus insignis*, 7 y 9/10/94, U.T.M. WN 8991.-Landarbaso, en un pastizal en la hierba, 27/10/00, U.T.M. WN 8990.

Es muy próximo al *Agaricus koelerionensis* Bon, con colores más lilacinos y esporas de 6-7,5(8) x 3-3,5(4) μm .

La carne de esta especie enrojece más bien poco y localizada, lo que la diferencia de especies como el *A. silvaticus*. Su olor parecido al de la *Lepiota cristata*, es también una característica diferenciadora importante.



515-12/10/02



515/1/10/95



515-9/10/94

Agaricus haemorrhoidarius
Schulzer in Kalchbr.

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: 8-15 cm-koa, hasiera batean esferaerdi-formakoa, erdialdea apur batean laua, gero ganbila-trapezoide itxurakoa eta ganbil-laua, aski mamitsua, ertzean errezel orokorraren hondakin finak. Marroi-hur kolorekoa, arre-gorrixka ilun samarra, txapel-azalean ia trapezoide-formako ezkatat, haritsuak eta itsatsiak, ia kolore berekoak eta gainazal guztia estalirik.

ORRIAK: ez oso zabalak, arrosa bizi-haragi kolorekoak edo gorrixkak, zahartzean marroi-purpura ilunak, ertz antzu argiagoarekin.

OINA: 8-15 x 1-1,5 cm-koa, 2,5-4 cm bitartekoa erraboilan, gutxi gora-behera zilindrikoa eta zenbaitetan berezko duen luzakina erraboilaren oinarrian, kofaduna, hasieran zuria eta behe-erdia ezkatetz estalia. Ukitzean gorri kolorea hartzen du eta lehortzean tonu beltzaxkak hartzen ditu. Eraztuna goialdean, itxuraz bikoitza ezkata arrengatik, zentrokideak. Heltzean oinari itsatsitako harien itxura hartzen du kanpoko azalak.

MAMIA: oso gorria, arrosa-odol kolorekoa ebakitzean, gorri-odol kolorea hartzen du eta argitu egiten da denborarekin. Usain ahula, ia aditzen ez dena. Schaefferren erreakzioa, negatiboa.

Agaricus haemorrhoidarius
Schulzer in Kalchbr.

Caracteres macroscópicos:

SOMBRERO: de 8-15 cm., al principio semiesférico con el centro un poco aplanado, luego más o menos convexo-trapezoidal a plano-convexo, bastante carnoso y con el borde con finos restos del velo general. El color varía del marrón-avellana al pardo-rojizo más o menos oscuro, cutícula con escamas subtrapezoidales, fibrilloso-adnatas, subconcolores y cubriendo toda la superficie.

LAMINAS: no muy anchas, rosa vivo carnicino o enrojecientes, al final marrón purpura oscuro, con el borde estéril más pálido.

PIE: de 8-15 x 1-1,5 cm., hasta 2,5-4 cm. en el bulbo, más o menos cilíndrico y en ocasiones con un apéndice característico en la base del bulbo, fistuloso, de color blancuzco al principio y con la mitad inferior escamosa, se mancha de rojo a la manipulación y al secarse toma tonos negruzcos. Anillo alto, con apariencia doble por las escamas parduscas, concéntricas, durante el desarrollo con el estrato externo en forma de fibrillas adnatas al pie.

CARNE: muy enrojeciente, rosa sangre al corte, virando al rojo sangre y palideciendo al tiempo, olor debil poco significativo, reacción de Schaeffer negativa.



516-12/11/94

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: eliptikoak/arrautza-formakoak, txikiak, 5-6,5 x 3-3,5(4) μm -koak.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, ikusitakoak 18-25 x 6-8 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira, borra zabalaren formakoak, 20-50 x 10-30 μm -koak, Marcel Bonen arabera. Ikusitakoak 18-30(45) x 8-12(20) μm -koak.

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman, ARAN 516. zk.

Caracteres microscópicos:


ESPORAS: elíptico-ovoides, pequeñas, de 5-6,5 x 3-3,5(4) μm .

BASIDIOS: tetraspóricos, observados de 18-25 x 6-8 μm .

QUEILOCISTIDIOS: numerosos, anchamente clavados, de 20-50 x 10-30 μm ., según Marcel Bon. Observados de 18-30(45) x 8-12(20) μm .

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 516.

***Agaricus haemorrhoidarius* Schulzer in Kalchbr.**

Habitat eta oharrak:

Udazkenean hazten da, hostozabalen basoetan, batez ere hariztietan, gaztainadietan eta pagadietan.

Trebiñon, arteak, 94/11/12an, U.T.M. WN 2530.- Ametzagañan, gaztainondoak, 96/10/20an, U.T.M. WN 8595.- Albin, iparraldeko elorri zuriaren oinetan, 98/10/10ean, U.T.M. WN 8157.

Agaricus langei eta *Agaricus silvaticus* espezieen antzekoa da oso. Aurrenekoa ondo asko bereizten da mikroskopikoki esporak askoz ere handiagoak dituelako. Bigarrena, aldiz oso antzekoa da nola makro hala mikroskopikoki, baina *A. silvaticus* espeziearen mamia ebakitzean lehenik laranja kolorea hartzen du, gero gorri-odol kolorea, arrosa samarra. *A. haemorrhoidarius* espezieak, berriz, berehala hartzen du gorri-odol biziaren kolorea.

Ezin habitata har dezakegu bereizketa-irizpidetzat; izan ere, konifera eta hostozabalen inguruetan jaso ditugu *A. silvaticus* espezieko aleak.

Hábitat y observaciones:

Especie otoñal que sale en bosques de planifolios, sobre todo de robles, castaños y hayas.

Trebiño, encinas, 12/11/94, U.T.M. WN 2530.- Ametzagaña, castaños, 20/10/96, U.T.M. WN 8595.- Albi, al pie de espino albar, 10/10/98, U.T.M. WN 8157.

Presenta un gran parecido con *Agaricus langei* y *Agaricus silvaticus*, el primero se distingue bien microscópicamente por las esporas claramente mayores. El segundo presenta un gran parecido tanto macro como microscópico, la carne de *A. silvaticus* vira al corte primero al naranja y luego al rojo sangre más o menos rosado, mientras que *A. haemorrhoidarius* vira directa e intensamente al rojo sangre.

No podemos tomar como criterio de separación el hábitat ya que hemos recogido ejemplares de *A. silvaticus* tanto bajo coníferas como bajo planifolios.



516-12/11/94

Agaricus fuscofibrillosus
(F. H. Möller) Pilát

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: neurri ertainekoa, 4-9 cm bitartekoa, hasieran esferaerdi-formakoa edo, gero ganbila, zenbaitetan pixka bat titiduna, ez oso mamitsua, gutxi gora-behera cm bateko lodierarekin, hurraren kolorea gainazal osoan, erdialdean ilunagoa, zuntzeka marroi eta arre ilun samarrez estalia, edozein kasutan ondo bereizten den ezkatarik gabe.

HIMENIOA: orriak oinetik berex, txapelaren haragiaren lodiera beretsuko zabalerarekin, hasieran arrosa argiak, gero marroi ilunak, ertz antzu argiagoa. Arrosa-odol kolorea hartzen du ukitzean.

OINA: gutxi gora-behera 6-8 x 1-1,5 cm-koa, kofaduna, zilindrikoa, zurixka, ukitzean odol-arre kolorekoa, gero-ago hur ilunaren kolorekoa. Eraztuna goialdean, mintzekoa, hauskor samarra, estua, zurixka, puntara luzatzen den ertza txapela itxita dagoen artean.

MAMIA: arrosa-gorrimina ebakiak egitean, bereziki oinean eta txapelaren erdian. Ez du usainik botatzen. Schaefferren erreakzioa, negatiboa.

Agaricus fuscofibrillosus
(F. H. Möller) Pilát

Caracteres macroscópicos:

SOMBRERO: de tamaño medio, 4 - 9 cm., al principio más o menos semiesférico, luego convexo, a veces un poco mamelonado, no muy carnoso, más o menos 1 cm. de grosor, de color avellana en toda la superficie, con el centro más oscuro, superficie cubierta de fibrillas de color marrón a pardo negruzco y en todo caso sin escamas bien individualizadas.

HIMENIO: formado por láminas libres, de anchura más o menos igual al grosor de la carne del sombrero, rosa claro al principio, después marrón oscuro, borde esteril más claro. Se manchan de rosa sanguino al toque.

PIE: de unos 6-8 x 1-1,5 cm., fistuloso, cilíndrico, blancuzco, sanguino a pardusco a la manipulación, más tarde de color avellana oscuro. Anillo alto, membranoso, más o menos frágil, estrecho, de color blancuzco, borde en dirección al ápice cuando el sombrero está aún cerrado.

CARNE: toma color rosa carmín al corte por zonas, especialmente en el pie y en el centro del sombrero, sin olor apreciable. Reacción de Shaeffer negativa.



517-30/9/95

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: marroi iluna espora-jalkinean, eliptikoak eta arrautza-formakoak, gutuladunak, 5-7(8) x 3,5-4,5 μm -koak.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, ikusitakoak 18-25 x 5,5-7 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira, globo-formakoak, borra zabalaren formakoak, esfera pedunculatuak, ikusitakoak 15-35(40) x 8-15(27) μm -koak.

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman, ARAN 517. zk.

Caracteres microscópicos:


ESPORAS: marrón oscuro en masa, elíptico-ovoides, gutuladas, de 5-7(8) x 3,5-4,5 μm .

BASIDIOS: tetraspóricos, observados de 18-25 x 5,5-7 μm .

QUEILOZISTIDIOS: numerosos, globosos, anchamente clavados, esfera pedunculados, observados de 15-35(40) x 8-15(27) μm .

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.A., ARAN nº: 517.

***Agaricus fuscofibrillosus* (F. H. Möller) Pilát**

Habitat eta oharrak:

Udazkeneko espezie urria, literaturaren arabera *Quercus* basoetan eta talde txikitik hazten dena. Guk denboraldi guztietan aurkitzen dugu eta beti basoetatik at, Urbasan, *Fagus* basoen ondoko soilgunean, garoen artean eta Baraibarren, *Quercus* basoetatik hurbil, iratzeen artean ere bai.

Urbasan, *Fagus* baso batetik hurbileko soilgunean, garoen artean, 95/09/23an eta 96/10/12an, U.T.M. WN 6742.- Baraibarren, *Quercus* baso batetik hurbil, 95/09/30, U.T.M. WN 8760.

A. langei espeziearen antzekoa da oso. Leku berean aurkitutako eta urtetik urte aztertutako aleek *A. langei* espeziearen ezaugarri makroskopiko eta mikroskopiko berdintsuak azaltzen dituzte, baina sekula ez dute ondo bereizirik ezkatarik.

Adituen arabera *A. langei* eta *A. fuscofibrillosus* espezieetako esporen neurriak ez dira berdinak, nahiz eta basidioek beti ere neurri konstantea duten, 18-25 x 5,5-7 µm.

Hábitat y observaciones:

Especie otoñal más bien rara, que sale según la literatura en pequeños grupos en bosques de *Quercus*. Nosotros la encontramos cada temporada y siempre fuera del bosque, en la sierra de Urbasa en claros cercanos a bosques de *Fagus* entre helechos y en Baraibar cercano a bosque de *Quercus* entre los helechos.

Urbasa, claro cercano a bosque de *Fagus*, entre helechos, 23/09/95 y 12/10/96, U.T.M. WN 6742.- Baraibar, cercano a bosque de *Quercus*, 30/09/95, U.T.M. WN 8760.

Especie muy próxima a *A. langei*. Los ejemplares encontrados en los mismos lugares y analizados en años sucesivos, presentan en unos casos caracteres microscópicos y macroscópicos acordes con *A. Langei*, pero nunca con escamas bien diferenciadas.

Las dimensiones de las esporas varían entre las dadas por los autores para *A. langei* y *A. fusco-fibrillosus*, los basidios permanecen siempre con dimensión constante, 18-25 x 5,5-7µm.



517-23/9/95



517-23/9/95



517-17/10/96

Agaricus lanipes

(F. H. Möller & Jul. Schäff.) Singer

Sin. : *Psalliota lanipes* Möller & J. Schäffer.**Ezaugarri makroskopikoak:**

TXAPELA: 5-12 cm diametrokoa, hasieran hemiesferikoa, gero ganbil-laua, sarritan erdialdea pixka bat behe-ratua eta titiduna, ezkata haritsuez eta artile-antzeko zuntzeskez estalia, kolorez marroi-arrea, marroi-okrea eta marroi-grisaxka, erdialdea marroi-okre uniforme.

HIMENIOA: orriak oinetik berex, finak eta zabalak, hasieran zurixkak eta arrosak, gero arrosa-haragi kolorekoak, zahartzean marroi ilunak, ertz antzu argiagorekin.

OINA: 5-8(10) x 1,5-3 cm-koa, txapelaren diametroa baino motzagoa, zilindriko loditua oinarrian eta borra edo mazo-formakoa, kofaduna, kolore horixkako errizomorfo batekin edo birekin, zuria eta ukitzean arre kolore arina hartzen duten zuntzeska finez estalia. Oinaren oinarrian mintz hondakinak ageri dira 2 edo 3 tokitan, eta anis usain fina dario, batzuetan aditzen ere ez dena. Mintzezko eraztuna, goialdean, aski handia, tolestua goiko aurpegian eta zuntzeska edo ezkata zurixka eta marroi-arreak beheko aurpegian.

MAMIA: zuria edo arrosa samarra, gorri-arrosa, batez ere oinaren goiko aldean eta txapelean. Usain bizi eta konplexu samarra, oinean anis usaina, ia aditzen ere ez dena Schaefferren erreakzioa, negatiboa karpoforo osoan, horitu egiten den oinaren aldean izan ezik, alde horretan erreakzioa positiboa baita argi eta garbi.

Agaricus lanipes

(F. H. Möller & Jul. Schäff.) Singer

Sin. : *Psalliota lanipes* Möller & J. Schäffer.**Caracteres macroscópicos:**

SOMBRERO : de 5-12 cm. de diámetro, inicialmente hemisférico, luego convexo aplanado, a menudo con el centro ligeramente deprimido y un poco umbonado, cubierto de escamas fibrillosas y fibrillas más o menos lanosas de color marrón pardusco, marrón ocráceo a marrón grisáceo, con el centro de color marrón ocráceo uniforme.

HIMENIO : formado por láminas libres, finas y anchas, inicialmente de color blancuzco rosáceo, luego rosa carnicino, al final marrón oscuro, con la arista estéril más clara.

PIE : de 5-8(10) x 1,5-3 cm., más corto que el diámetro del sombrero, de cilíndrico engrosado en la base a clavado o con forma de maza, fistuloso, con uno o dos rizomorfos que viran al amarillo, blanco y cubierto de finas fibrillas que pardean algo a la manipulación. Base del pie con 2 o 3 zonas de restos membranosos, escamosos, de color marrón oscuro más evidentes en los ejemplares jóvenes, amarillea al frote, desprendiendo un fino olor anisado evanescente. Anillo membranoso, alto, bastante amplio, plisado en la cara superior y con algunas fibrillas o escamillas blancuzcas a marrón pardusco en la cara inferior.

CARNE : blanca o ligeramente rosácea, rojo-rosáceo, sobre todo en la zona alta del pie y sombrero, olor un poco fuerte y complejo, anisado y evanescente en la base del pie. Reacción de Scheaffer negativa en todo el carpóforo, salvo en la zona del pie que amarillea donde es claramente positiva.

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: marroi iluna espora-jalkinean, eliptikoak, (5,5)6-7,5(8,5) x 4-4,5(5) μm -koak, eskuarki gutula bat, bi edo hirurekin.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, borra-formakoak, 20-26 x 5,5-7 μm -koak, ale batzuetan 27-32 x 7-9 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira eta forma askotakoak, batez ere borra-formakoak edo borra zabalaren formakoak, ia globo-formakoak, esfera-pedunculatuak, trenkada modukoak, gutxi batzuk botila-formakoak, 18-35(50) x 8-15(20) μm -koak.

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman.- Beste aipamen batzuk, ARAN 518. zk.

Caracteres microscópicos:

ESPORAS : marrón oscuro en masa, elípticas, de (5,5)6-7,5(8,5) x 4-4,5(5) μm ., en general con una, dos o tres gúttulas.

BASIDIOS : tetraspóricos, clavados, de 20-26 x 5,5-7 μm ., hasta 27-32 x 7-9 μm . en algunos ejemplares.

QUEILOZISTIDIOS : numerosos y polimorfos, sobre todo clavados o anchamente clavados, subglobosos, esfero-pedunculados, septados, raros lageniformes de 18-35(50) x 8-15 (20) μm .


Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi.- Nuevas citas, ARAN nº: 518.



518-5/8/00

Agaricus lanipes (F. H. Möller & Jul. Schäff.) Singer



518-15/8/96

Habitat eta oharrak:

Uda-udazkeneko espeziea, *Pseudotsuga menziesii* eta *Quercus* espezien azpialdean aurkitzen dena.

Urbasako aleak, 1994ko irailaren 24an eta 30ean eta azaroaren 5ean, 1995eko irailaren 23an eta 25ean, 1996ko azaroan, 1997ko azaroaren 7an eta 1998ko irailaren 8an bilduak. Urdiainen, *Quercus* baten azpialdean, 1996ko uztailearen 14an, "MUNIBE NATUR ZIEN-TZIAK 1998". Beste aipamen batzuk; Urdiain, 00/8/5ean, *Quercus* baten oinetan, U.T.M. WN 6952.-Urbasan, Douglas izei baten azpialdean, 00/10/7an, WN 6742.

Oso espezie urria da, eta gainazalaren horia, oinaren oinarriaren anis usaina, ezkatetz estaliriko aldeak, beheherenean errezel hondakinak eta ageriko errizoideak ditu ezaugarri nagusi. Bestalde, horitzen den oinaren azalean baizik ez da positiboa Schaefferren erreakzioa. Karpoforoaren beste ataletako mamia zuria da, apur batean gorritu egiten da oinaren eta txapelaren elkargunean. Kolore okre-gorrixka izan dezake oinaren oinarrian.

Agaricus lanipes makroskopikoki oso antzekoa da *Agaricus impudicus* eta *A. vaporarius* espezieetako "forma" batzuen aldera.

Hábitat y observaciones:

Especie de verano-otoño que hemos encontrado bajo *Pseudotsuga menziesii* y *Quercus*

Ejemplares de Urbasa, 24 y 30 de setiembre y 5 de noviembre de 1.994, 23 y 25 de setiembre de 1.995, noviembre de 1.996, 7 de noviembre de 1997, 8 de setiembre de 1998. Urdiain, bajo *Quercus*, el 14 de julio de 1.996, "MUNIBE CIENCIAS NATURALES 1998". Nuevas citas; Urdiain, 5/8/00, bajo *Quercus*, U.T.M. WN 6952.- Urbasa, bajo abeto de Douglas, 7/10/00, WN 6742.

Especie muy rara, que se caracteriza por el amarilleamiento superficial y olor anisado en la base del pie, zonas escamosas restos del velo en el tercio inferior y rizoide evidente. También es característica la reacción de Schaeffer positiva solo en la superficie del pie donde amarillea.

La carne en el resto del carpóforo es blanca o enrojece más o menos en la parte alta del pie y sombrero. Puede presentar un ligero tono ocre-bermejo en la base del pie.

Agaricus lanipes presenta macroscópicamente bastante parecido con algunas "formas" de *Agaricus impudicus* e incluso de *A. vaporarius*, con los cuales podría ser fácilmente confundido.



1453-23/9/95



1453-25/9/95



1453-8/9/98

Agaricus lanipes (F. H. Möller & Jul. Schäff.) Singer

Agaricus squamuliferus
(F. H. Möller) Pilát

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: 6-18 cm diametrokoa, hasieran globo-formakoa, mamitsua, gero ganbila, hasieran zuria, ezkata txikiak tente, ertzen aldean grisaxkak, gero zuria eta ezkatak okre-grisaxkak. Ale helduetan batzuetan ezkatak handiak izaten dira eta txapelaren azala arraitzen dute.

ORRIAK: ale gazteetan fin eta mehar samarrak, arrosa argiak eta ertz antzua argiagoa, marroi iluna ale zaharretan.

OINA: 6-10 x 1-2 (3,2) cm-koa, hasieran borra-formakoa edo, gero zilindriko samarra, kofaduna, baina mamia trinkoagoa, zurixka, eraztunaren azpian goiko erdialdean ia leuna eta ezkata txiki eta tenteak, arre-grisaxkak, beheko erdialdean. Eraztuna goialdean, bikoitza eta lodia, azpiko geruza gurpil horztunaren itxurakoa, hortz zabal eta lodiekin.

MAMIA: ebakitzean kolore gorrixka edo laranja-gorrixka ederra du, oso agerikoa beti, usain azido samarra, fruta usain antzekoa ale gazteetan, usain fungiko bizia oso ale helduetan.

Agaricus squamuliferus
(F. H. Möller) Pilát

Caracteres macroscópicos:

SOMBRERO: de 6-18 cm. de diámetro, al principio más o menos globoso, carnoso, luego convexo, inicialmente blanco, con pequeñas escamas características erizadas de color grisáceo hacia el borde, luego blanco con escamas ocre grisáceas, a veces en los ejemplares desarrollados grandes y agrietando la superficie del sombrero.

LAMINAS: más bien finas y estrechas en los ejemplares jóvenes, de color rosa pálido con el borde estéril más claro, marrón oscuro en los ejemplares viejos.

PIE: de 6-10 x 1-2 (3,2) cm., inicialmente ligeramente clavado, luego más o menos cilíndrico, fistuloso aunque con la carne muy compacta, blancuzco, bajo el anillo casi liso en su mitad superior y con características escamitas erizadas un poco pardo grisáceas en su mitad inferior. Anillo alto, doble y grueso, con el estrato inferior en rueda dentada con anchos y gruesos dientes.

CARNE: al corte de un bello color rojizo o anaranjado-rojizo, siempre bien manifiesto, olor ácido algo afrutado en los ejemplares jóvenes, fúngico fuerte en los ejemplares muy desarrollados.



519-5/11/94

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: eliptikoak edo luzanga samarrak, 5-7(8) x 3,5-4,5 μm -koak.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, 20-32 x 6-8 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira, borra estu samarraren formakoak edo bi edo hiru artikulazioekin, (10)15-25(45) x 6-10(14) μm -koak.

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman, ARAN 519. zk.

Caracteres microscópicos:


ESPORAS: elípticas o ligeramente oblongas, de 5-7(8) x 3,5-4,5 μm .

BASIDIOS: tetraspóricos, de 20-32 x 6-8 μm .

QUEILOCISTIDIOS: numerosos, más o menos estrechamente clavados o con dos o tres articulaciones, de (10)15-25(45) x 6-10(14) μm .

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 519.

***Agaricus squamuliferus* (F. H. Möller) Pilát**

Habitat eta oharrak:

Udan eta udazkenean sortzen da hala belardi eta larreetan nola konifera basoetan. Urbasa eta Aralarko mendietan aurkituko dugu.

Urbasan, larreetan, 94/11/5ean eta 94/12/2an, U.T.M. WN 6743.-Urbasan, pinudian, 95/6/14an, U.T.M. WN 6742.

Antzeko espezieak dira: *Agaricus benesii*, *Agaricus deylii* eta *Agaricus subflocosus*. Caroli mota aurkitu da, txapel-azala marroi argia dute jada ale gazteek. Jateko ona da, mamitsua, eta errendimendu ona du.

Hábitat y observaciones:

En verano y otoño, tanto en prados y pastizales como en bosques claros de coníferas. La encontramos en la sierra de Urbasa y en la sierra de Aralar.

Urbasa, en pastizales, 5/11/94 y 2/12/94, U.T.M. WN 6743.-Urbasa, bosque de pinos, 14/6/95, U.T.M. WN 6742.

Especies próximas son: *Agaricus benesii*, *Agaricus deylii* y *Agaricus subflocosus*. Se contempla la var. caroli, con la cutícula de color marrón claro ya en los jóvenes ejemplares. Es un buen comestible carnoso y con buen rendimiento.



519-7/11/97



519-5/11/94

Agaricus langei
(F. H. Möller) F. H. Möller

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: 5-10 cm-koa, hasieran ganbila, heldzean ganbil-laua, ezkata haritsuez estalia, itsatsi samarrak, kolorez marroia eta erdialde ilunagoa.

ORRIAK: hasieratik eta luzaroan arrosa argiak, gero marroi ilunak, mamiaren lodiera baino estuagoak, ertz antzu argiagoa. Eratzuna goialdean, fina, gutxi gorabehera gona-formakoa, iraunkorra, ertz lodi samarra eta gurpil horztuna, ez ordea arvensis espeziearen moldekoa, eratzunaren azpiko ertzean baizik. Ertz arre samarra.

OINA: zilindrikoa edo fusiforme samarra, ale hauetan beti txapelaren diametroa baino motzagoa, kofadun samarra eta muin itxurakoa. Eskuarki ia erabat zilindrikoa eta txapela baino luzeagoa izan ohi da oina.

MAMIA: ebakitzean tonu gorri-laranjak hartzen ditu, ez oso biziak, oinaren azalean eta txapela eta oina batzen diren aldean izan ezik. Usain azido-fungikoa, fina eta suabea, ez nabarmena. Schaefferren erreakzioa, negatiboa. Oina igurtzitzean gorritu egiten da.

Agaricus langei
(F. H. Möller) F. H. Möller

Caracteres macroscópicos:

SOMBRERO: de 5-10 cm., inicialmente convexo, convexo aplanado en los ejemplares desarrollados, cubierto de escamas fibrillosas, más o menos adnatas, de color marrón con el centro algo más oscuro.

LAMINAS: desde el inicio y durante largo tiempo de un color rosa claro, luego marrón oscuro, menos anchas que el grosor de la carne, borde estéril un poco más claro. Anillo alto, fino, membranoso, más o menos en falda, persistente, con el borde algo engrosado y formando una rueda dentada, pero no del tipo arvensis si no en el margen inferior del anillo, borde ligeramente pardusco.

PIE: Cilíndrico o ligeramente fusiforme, en estos ejemplares siempre más corto que el diámetro del sombrero, más o menos fistuloso-meduloso. Generalmente el pie suele ser casi cilíndrico y más largo que el sombrero.

CARNE: toma tonos rojo-anaranjados a la sección, no muy intensos, salvo hacia la corteza del pie y en la zona de cruce del pie con el sombrero, olor ácido-fúngico fino y suave, no destacado. Reacción de Schaeffer; negativa. En el pie enrojece al frote.



520-30/9/96

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: eliptikoak, ia luzanga, luzakin txiki nabarmentarekin, kolorez marroi ilunak, 7-10 x 4,5-5,5 μm -koak.

BASIDIOAK: borra-formakoak, tetrasporikoak, 22-35 x 7-9 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira ale guztietan, borra zabalaren formakoak, udare-formakoak eta ia globo formakoak, 15-40 x 10-22 μm -koak.

Ale lehorrak:

Aranzadi Zientzi Elkarteko landare-bilduman, ARAN 520. zk.

Caracteres microscópicos:

ESPORAS: elípticas, suboblongas, con apículo destacado, de color marrón oscuro, de 7-10 x 4,5-5,5 μm .


BASIDIOS: clavados, tetraspóricos, de 22-35 x 7-9 μm .

QUEILOZISTIDIOS: numerosos en todos los ejemplares, de anchamente clavados a piriformes, subglobosos, de 15-40 x 10-22 μm .

Exsiccatas:

En el herbario de la S.C.Aranzadi, ARAN nº: 520.

Agaricus langei (F. H. Möller) F. H. Möller



Habitat eta oharrak:

Urbasan, Pagoen azpialdean, 96/9/30ean, U.T.M. WN 6743.- Urbasan, larrean, 96/10/9an, U.T.M. WN 6742.

Bigarren bilduma bat dator makroskopikoki *A. mediofuscus* espeziearekin. S.P. Wasserren arabera (1980), *A. langei* var. *mediofuscus* espeziearen mota bat da.

Hábitat y observaciones:

Urbasa, bajo hayas, 30/9/96, U.T.M. WN 6743.- Urbasa, pastizales, 9/10/96, U.T.M. WN 6742.

La segunda recolecta, concuerda macroscópicamente bien con *A. mediofuscus*. Para S.P. Wasser (1980) es simplemente una variedad *A. langei* var. *mediofuscus*.

***Agaricus langei* var. *mediofuscus* (F. H. Möller) Wasser**

520-9/10/96

Agaricus depauperatus

(F. H. Möller) Pilát.

Sin. : *Agaricus deylii* Pilát.**Ezaugarri makroskopikoak:**

TXAPELA: 5-8(10) cm diametrokoa, hasieran ia globo-itxurakoa, kono moztua edo ia zilindrikoa, azkenean ganbila edo ganbil-laua, oso kolore aldakorra, zuri garbia, zuri grisaxka, batzuetan beix kolorekoa edo nabarra, okre argia eta tonu grisaxka eta arrosak; txapel-azalaren ertzak txapela bera baino handixeagoak eta apendikuluak xamarak, zuntzekoa, zuntzeska finak edo ezkata txiki aplikatuak, kolore berekoak hondo argiagoren gainean.

ORRIAK: orriak oinetik berex, finak, aski trinkoak eta lamelulak tartean, 0,6 - 1,0 cm zabalerakoak, hasieran zuri-arrosaxkak, gero arrosak eta azkenean nabar ilunak, isla gorrixekin eta ertza argiagoa.

OINA: 4-7(9) x 1-1,5 (1,7) cm-koa, gehienetan zilindrikoa, zilindrikoa eta oinarri lodixeagoa, batzuetan ia fusi-formea, betea ale gazteetan, gero kofaduna, zuria, eraztun zuriaren gainean hondo arrosarekin, zuntz-zeta antzekoa. Eratzuna goialdean, mintzekoa, zuria edo ertza nabar samarra, hasieran zurtoin-punta aldera bihurtua, behin txapela ireki ondoren, beherantz, ertz bikoitzarekin, horzdun gurgilaren itxurakoa hortz edo ezkata txikiekin.

MAMIA: zuria, arrosa-laranja edo arrosa-ardo kolorea oina eta txapela elkartzen diren lekuan eta oinaren azalean, laranja-horixka oinarri aldera. Usain ahula, azido samarra, batzuetan biziagoa eta konplexuagoa zurtoinaren oinarrian. Schaefferren erreakzioa (-) karpoforo osoan, KOH %10ean (+) zurtoinaren oinarrian, azalaren okre-laranjaxka eta barnealdean horia edo hori-laranja.

Agaricus depauperatus

(F. H. Möller) Pilát.

Sin. : *Agaricus deylii* Pilát.**Caracteres macroscópicos:**

SOMBRERO: de 5-8(10) cm de diámetro, inicialmente subgloboso, cónico truncado o subcilíndrico, finalmente convexo a convexo aplanado, de color muy variable, blanco puro, blanco grisáceo, a veces de color beige o pardo ocráceo claro con tonos grisáceos o rosados; cutícula con el margen ligeramente excedente y más o menos apendiculado, fibriloso, con finas fibrillas o escamitas aplicadas, del mismo color sobre fondo más claro.

LAMINAS: libres, finas, bastante densas y con laméculas intercaladas, de 0,6 a 1,0 cm de ancho, inicialmente de color blanco rosado, luego rosas y finalmente de color pardo oscuro con un reflejo rojizo y con la arista más pálida.

PIE: de 4-7(9) x 1-1,5 (1,7) cm, generalmente cilíndrico, cilíndrico con la base ligeramente engrosada, a veces subfusiforme, lleno en los ejemplares jóvenes, luego fistuloso, blanco, sobre el anillo blanco con fondo rosado, fibrilo-sedoso. Anillo súpero, membranoso, de color blanco o con el borde ligeramente pardusco, inicialmente recurvado hacia el ápice, una vez abierto el sombrero, descendente, con el borde doble, en forma de rueda dentada con pequeños dientes o escamas.

CARNE: blanca con ligeros tonos rosado-anaranjados o rosado-vinosos en la zona de unión del pie con el sombrero y en la zona superficial del pie, anaranjado-amarillento hacia la base. Olor débil, acidulado, a veces más fuerte y complejo en la base del pie. Reacción de Schaeffer (-) en todo el carpóforo, KOH al 10% (+) en la base del pie, superficialmente ocráceo anaranjado e interiormente amarillo o amarillo anaranjado.

Ezaugarri mikroskopikoak:

ESPORAK: marroiak espora-jalkinean, elipsoidal-luzangak, 6,2-9,5(10) x 4,5-5,5(6) μm -koak, Q: 1,40-1,82.

BASIDIOAK: tetrasporikoak, kali-formakoak, 20-32 x 7,5-10 μm -koak.

KEILOZISTIDIOAK: ugari dira, kali-formakoak, udare-itxurakoak, ia globo-formakoak, de 18-30 (40) x 8-18 (20) μm .

TXAPEL-AZALA: pigmentu gutxiko hifa paraleloek osatua, 4-8 μm -koa, adarkatze urri.


Caracteres microscópicos:

ESPORAS: de color marron en masa, de elipsoidales a oblongas, de 6,2-9,5(10) x 4,5-5,5(6) μm , Q: 1,40-1,82.

BASIDIOS: tetraspóricos, claviformes, de 20-32 x 7,5-10 μm .

QUEILOZISTIDIOS: numerosos, claviformes, piriformes, subglobosos, de 18-30 (40) x 8-18 (20) μm .

CUTÍCULA: formada por hifas paralelas poco pigmentadas, de 4-8 μm de diámetro, con bifurcaciones escasas.

***Agaricus depauperatus* (F. H. Möller) Pilát**

Habitat eta oharrak:

ESPAINIA, GIPUZKOA, Landarbaso, 30TWN 9090, larre baten ertzean, belarra eta ongarri organiko ugari zuen kare lurtean, *Chamaecyparis lawsoniana*-ren azpian, 01/07/28an, ARAN 00552, Ibidem, 01/09/09an, ARAN 00553, Ibidem, 01/09/22an, ARAN 00554, Ibidem, 01/12/02an, ARAN 00555, Ibidem 02/07/07an, ARAN 00556.

Agaricus depauperatus (F.H. Möller) Pilát gisa sailkatu zen, espezie urria kontsideratzen da, baina Europan aski zabaldua.

Agaricus depauperatus (F.H. Möller) Pilát eta *Agaricus deylii* Pilát moten deskribapenei erreparatzen badiegu, funtsean txapelaren kolorea eta esporen neurria beste alderik ez dutela konturatuko gara.

Gure kasuan, egoera onean bildu ditugun aleen txapelaren kolorea, ongi helduak barne, zuri garbia eta okre argiaren artekoa da. Horrenbestez, ezaugarri makroskopikoei dagokienean, batzuetan *Agaricus deylii* Pilát motarekin dator bat eta *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát motarekin besteetan.

Era berean, bildutako aleen esporak alderatzen baditugu, neurketa hori ongi heldutako aleetan eginez gero, ikusiko dugu neurriak, 6,2-8,5 x 4,5-5,3 µm (ARAN 00553, ARAN 00554) eta 6,5-9,5(10) x 4,5-5,5(6) µm (ARAN 00552) aldatzen direla batzuen eta besteen artean.

Bestalde, CAPPELLIren arabera(1984), Italian bildutako *Agaricus deylii* Pilát ale batzuek 7-9(9,5) x 4,5-5(5,5) µm-ko esporak dituzte.

WASSERREK (1989), *Agaricus deylii* motaren deskribapenean nabarmentzen du PILÁTek jatorrizko diagnosis 9,5-11 x 5,3-6 µm-ko esporak dituela, baina mota horretako espezieak prozesu estatistikoaren bidez aztertuta, ikusten da neurri horiek 7-8,6 x 4,5-5,5 µm-koak direla, eta geroago, PILÁTek (1953) *Agaricus deylii* motaren beste deskribapen bat egiten du, txapela aski ezkatatsurekin eta 9-9,5 x 4,5 µm neurriko esporekin.

Horren guztiarengatik, eta NAUTArenkin bat (2001), *Agaricus deylii* Pilát eta *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát espezie bera dela uste dugu. Era berean, lehen epiteto hori geroagokoa, eta horrenbestez, bestearen sinonimoa dela uste dugu.

Hábitat y observaciones:

ESPAÑA, GUIPUZCOA, Landarbaso, 30TWN 9090, en el borde de un pastizal sobre terreno calcáreo con hierba y abundante abono orgánico, bajo *Chamaecyparis lawsoniana*, 28/07/01, ARAN 00552, Ibidem, 09/09/01, ARAN 00553, Ibidem, 22/09/01, ARAN 00554, Ibidem, 02/12/01, ARAN 00555, Ibidem 07/07/02, ARAN 00556.

Se determinó y clasificó como *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát y está considerada como una especie rara pero difundida en Europa.

Si tenemos en cuenta las descripciones de los tipos, *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát y *Agaricus deylii* Pilát, nos encontramos con que no se diferencian básicamente más que en el color del sombrero y en la dimensión de las esporas.

En nuestro caso, el color del sombrero de los ejemplares recolectados en perfecto estado, incluyendo los bien desarrollados, varía del blanco puro al pardo ocráceo claro, coincidiendo por lo tanto macroscópicamente en unos casos con *Agaricus deylii* Pilát y en otros con *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát

Asímismo, si comparamos las esporas de las distintas colecciones realizando la medición en ejemplares bien desarrollados, podemos ver que las dimensiones varían de unos a otros entre, 6,2-8,5 x 4,5-5,3 µm (ARAN 00553, ARAN 00554) y 6,5-9,5(10) x 4,5-5,5(6) µm (ARAN 00552).

Por otro lado, según CAPPELLI (1984), algunos ejemplares de *Agaricus deylii* Pilát recolectados en Italia presentan esporas de 7-9(9,5) x 4,5-5(5,5) µm.

WASSER (1989), en la descripción de *Agaricus deylii* resalta que PILÁT en la diagnosis original da como dimensiones de las esporas 9,5-11 x 5,3-6 µm, mientras que el subsiguiente estudio de los especímenes del tipo por el proceso estadístico muestra que las dimensiones son de 7-8,6 x 4,5-5,5 µm y que más tarde, PILÁT (1953), da una nueva descripción de *Agaricus deylii* con el sombrero más o menos escamoso y con dimensiones esporales de 9-9,5 x 4,5 µm.

Por todo ello, y de acuerdo con NAUTA (2001), consideramos a *Agaricus deylii* Pilát y a *Agaricus depauperatus* (F.H. Möller) Pilát, como una misma especie y al primer epiteto como posterior y, por lo tanto, sinónimo.



553-9/9/01



552-28/7/01

Agaricus depauperatus (F. H. Möller) Pilát

FLAVESCENTES / FLABESZENTEAK

SECCIÓN *ARVENSES* SAILA

GRUPO *ARVENSIS* TALDEA
GRUPO *SPISSICAULIS* TALDEA
GRUPO *MACROSPORUS* TALDEA
GRUPO *SYLVICOLA* TALDEA
GRUPO *AESTIVALIS* TALDEA
GRUPO *AUGUSTUS* TALDEA

Agaricus arvensis Schaeff.

Ezaugarri makroskopikoak:

TXAPELA: handia, 24 cm diametro bitartekoa, gaztetan gutxi gora-behera globo-formakoa edo moztutako kononaren formakoa, gero ganbil-laua, txapel-azal lodia, bereizi daitekeena, hasieran zuria, horixka eta gero erdialde okrea, eta zahartzean okre-gorrixka samarra, leuna edo kolore bereko zuntzeskez edo ezkatetz apainduta.

ORRIAK: hasieran ia zuriak, apur batean gris-arrosak, gero, heltzean, gris-more ilunak.

